*Batetik osasun arazoak eta psikosomatikoak*, gaixotasun-egoera, mediku-bisita edo pairamen arinekin lotutako estres-eragileak (itemak: 1, 4, 7, 10, 13, 16, 19 eta 22); *Bestetik estresa eskolaren esparruan*, eskolaz aparteko lan gehiegirekin, irakasleekiko elkarrekintzan izaten diren arazoekin, eskolako nota baxuekin, ikaskideekin harremanak izateko zailtasunekin lotuta (itemak: 2, 5, 8, 11, 14, 17 eta 20); eta azkenik *estresa familiarren esparruan*, kontakturik ezarekin nahiz gurasoen ikuskapenarekin, hautemandako bakardadearekin, anaien arteko borrokekin edo gurasoen aldetiko exigentziarekin lotutako egoerak (itemak: 3, 6, 9, 12, 15, 18 eta 21).

Puntuazio osoa eta azpi-eskalak lortzeko, eskala bakoitzean itemei emandako baiezkotza erantzun kopuruak batzen dira. Gainera, IECI inbentarioak, era berean, "Erabateko estresa" izeneko puntuazio osoa ematen du. Horretarako, hiru eskaletako puntuazioak batzen dira edo testa osatzen duten 22 itemetan emandako baiezkotza erantzun guztiak zenbatzen dira. IECI inbentarioko puntuazioak interpretatu ahal izateko norbanakoa biztanleria orokorrarekin alderatzeko ohiko irizpideak aplikatu daitezke, pertzentil-puntuazioak edo T puntuazio tipikoa erabiliz. IECI inbentarioan mozketak-puntu orientazioko modura hauek proposatzen dira:  $T=55$  edo gutxiago, estresarekin lotutako

arazo adierazgarririk ez dagoela adierazteko; T=56-65, estresarekin lotutako sintoma arina adieraz dezake; eta T=66 baino gehiago, sintoma larriak adierazteko.

### ***Froga psikometrikoak***

Galdetegiaren ezaugarri psikometrikoei dagokienez, fidagarritasun egokia duen tresna bat da, eta eskala osorako (estres osoa) bere barneko kontsistentzia .81 puntukoa izan zen. Haatik, ikerketaren laginean onartzeko moduko balioa eskuratu zen, baina estres osoaren eskalan baino baxuagoa ( $\alpha = .68$ ).

Itemak beren argitasunaren hiru dimentsioekin, 1-5 bitarteko eskala batean, modu itsuan elkarlotzeko protokolo ohikoari jarraitu zen. Adituen (haurren estresean espezialistak diren 10 aditu) iritziekin ebaluatutako edukien baliotasunak adierazten zuenez, itemak oso argitasun maila handiak zituztela berretsi egin zen (item guztiek 3,9 puntu edo gehiagoko balioa erakusten dute, 22 itemetatik 13tan 4,5 puntu edo gehiagoko balioa erakutsiz). Halaber, Aikenen V balioa kalkulatu zen item bakoitzak ebaluatutako esparruarekiko duen egokitasun- edo garrantzi-maila frogatzeko, eta kasu batean ere ez zen 0,50 puntutik gorako V baliorik eskuratu egileek proposatutakoaz aparteko dimentsio batean.

Eraikitze-balioa aztertzeko laginaren % 50 hartu zen ausaz eta faktoreen gaineko berrespenerako azterketa bat egin zen korrelazio tetrakorikoen matritzetik abiatuz Egiantz Handieneko Robust prozedura (ML, Robust) erabiliz. Azterketa hori egin ondoren indize guztiak desiragarri diren tarteetan zeudela ikusi zen. Horrek proposatutako ereduaren doikuntza orokor egokia erakusten zuen. Itemen azterketa egokia izan zen, izan ere, guztietan 0,30 puntutik gorako balioak aurkitu ziren. Horrek puntuazio altuak eta baxuak eskuratzen dituzten haurren artean diskriminazio ona ematen dela adierazten du. Kanpoko baliotasun probek, era berean, harreman positiboak eta estatistikoki adierazgarriak erakutsi zituzten egokitzapen sozial eta emozionala adierazteko aldaera ezberdinekin eta antsietatea, haserrea eta depresioa ebaluatzeko tresna ezberdinekin. Halaber, IECI inbentarioa egokitzapen pertsonala adierazten duten aldaerekin lotzen da modu negatibo eta adierazgarrian, esate baterako, pertsonen arteko harreman egokiekin,

autoestimuaekin eta norbere buruarekiko konfiantzarekin. Halaber, harreman positiboa eta estatistikoki adierazgarria hauteman zen IECI inbentarioko puntuazio altuen eta kortisol/DHEA ratioaren bidezko estres fisiologikoaren markatzaileen artean.

#### **6.2.4 PSS. Guraso-estresaren eskala (Berry eta Jones, 1995; espainierazko egokitzapena Oronoz, Alonso-Arbiol eta Balluerka, 2007) (Sariak eta estres-eragileak)**

##### ***Galdetegiaren deskribapena***

Eskala hau haurrak heztearen ondorioz gurasoek duten estres-maila neurtzeko diseinatutako tresna bat da. Berezitasun modura, guraso izatearen ondorioz sortzen den estresa du zehazki ardatz eskala honek. Izan ere, beste tresna batzuek ez dituzte guraso izatearen estresa eta beste rol edo egoera batzuen ondoriozko estresa bereizten (esaterako finantza-arazo edo bikote arazoekin loturiko estresa). Tresna honekin bi kontzeptu nagusirekin lotutako neurketak lortzen dira. Batetik, “*Haurraren sari edo asebetetzea*”, guraso izatearen rola bidez jasotzen duten asebetetze modura ulertuta, eta bestetik faktore “*estres-eragilea*”, aurrez aipatutako rola bidez sortzen den estresarekin lotzen dena.

##### ***Aplikazio, zuzenketa eta interpretaziorako arauak***

PSS eskala 12 itemek osatzen dute bost puntuko Likert erako erantzunen eskala batean, non 1 “desadostasun erabatekoa” den eta 5 “erabateko adostasuna”. Item horiekin guraso eta seme-alaben arteko harremana deskribatzen da eta bakoitza nola sentitzen den neurtzen da. Berau zuzentzeko, guraso-estresaren puntuazio osoa zuzenean eskura daiteke item bakoitzaren puntuazioak batuta. Horretarako, alderantzizko izaera duten itemak hartu beharko dira kontuan (1, 3, 4, 11 eta 12 itemak). 1, 3, 4, 11 eta 12 itemek, faktore *estres-eragilea* osatzen dute eta 2, 5, 6, 7, 8, 9, 10 itemek, berriz, *asebetetzeen* faktorea. Galdetegia zuzenduta eta, esan bezala, alderantzizko itemak



kontuan hartuz norbanakoaren puntuazioak eskuratuta, puntuazio altuak norbanakoak hautemandako estres-maila altuekin bat datozeela ulertuko da.

### ***Froga psikometrikoak***

Eskalaren fidagarritasunari dagokionez, Cronbachen Alpha .77 eta .76 puntukoa izan zen *asebetetzea eta estres-eragile* faktoreetarako hurrenez hurren. Horrek barne kontsistentzia egokia adierazten du. Ikerketa honen laginean asebetetzearen eta estres-eragilearen faktoreetan .69 eta .73 puntu lortu ziren, hurrenez hurren Cronbachen Alpha puntuazioan neurtuta, eta .72 puntu eskuratu ziren osorako puntuazioan. Baliotasunari dagokionez, osagai nagusien azterketa bat egin zen oblimin errotaio bidez. Bi faktore nagusi eskuratu ziren % 33,5eko bariantza azaltzen dutenak, hots, sari izendatu zen faktorea (% 23,4koa azaltzen zuena) eta estres-eragile izendatu zen faktorea (% 10,1ekoa azaltzen zuena).

#### **6.2.5 ECPP. Hautemandako guraso-gaitasunaren eskala (gurasoentzako bertsioa) (Bayot eta Hernandez, 2008)**

##### ***Galdetegiaren deskribapena***

Hautemandako guraso-gaitasunaren eskala (ECP), gurasoen bertsioan, 22 itemez osatzen da, 4 puntuko Likert erantzun-eskala batean (Sekula ez, batzuetan, ia beti eta beti). Eskala horrek eskolako lanetan *inplikazioa, gurasoen dedikazioa, aisialdi partekatua eta aholkularitza/orientazioa* zenbatekoa den eta *gurasoen rola* zenbateraino hartzen den ahalbidetzen du 3-18 urte bitarteko haurren gurasoen kasuan. Bost alderdi horiek gurasoen aldetik hautemandako guraso-gaitasuna adierazten dute. Hau da, gurasoek euren seme-alaben heziketa-jarduna modu asebetegarri eta eraginkorrean nola hautematen duten adierazten duen gaitasuna.

### ***Aplikazio, zuzenketa eta interpretaziorako arauak***

Galdetegia bakarka edo kolektiboki aplikatu daiteke eta ez dago hura egiteko denbora mugarik. Zenbait argibide eta 4 balizko erantzun dituzten 22 item barneratzen dituen galdetegi bat aurkezten da, 1-4 bitarteko Likert eskala erabiliz, non 1 Sekula ez den eta 4 Beti den. ECPP eskalako bost faktoreen puntuazio zuzenak zuzenketa-txantiloietako puntuazio zuzenak batuz lor daitezke. 22 item horietatik 5 faktore eskuratzen dira: *Inplikazioa eskolan* (itemak: 4, 11, 13, 15, 21), *Dedikazio pertsonala* (5, 9, 10, 12 eta 20), *Aisialdi partekatua* (itemak: 6, 7, 8 eta 19), *Aholkularitza/orientazioa* (itemak: 14, 16, 17 eta 18) eta *Guraso izatearen rola baitaratzea* (itemak: 1, 2, 3 eta 22). Eskala horretan, gainera, puntuazio zuzenak zentil-puntuazio bilakatzeko Taula bat aurkezten da. Hori lagungarri da profil indibidual bat osatzeko.

### ***Froga psikometrikoak***

Eskalaren Cronbachen Alpha koefizientea .86 puntukoa da. Horrek barneko kontsistentzia egokia dela adierazten du. Laginean, eskalaren Cronbachen Alpha koefizientea .83 puntukoa izan zen. Baliotasuna faktore motako prozedura bat eta diskriminatzailea den beste bat erabiliz aztertu zen. Faktore-osaerak, bost dimentsio islatu zituen varimax errotaioaren bidez, bariantza osoaren % 48,80 azalduz, 0,48 puntutik gorako saturazioekin. Goitik beherako hurrenkeran: F<sub>1</sub>“inplikazioa eskolan” 2,67 puntuko berezko balio batekin, % 12,14 azalduz; F<sub>2</sub> “arduraldi pertsonala” 2,46 puntuko berezko balio batekin, % 11,19 azalduz; F<sub>3</sub> “aisialdi partekatua” 2,14 puntuko berezko balio batekin, % 9,73 azalduz; F<sub>4</sub> “aholkularitza eta orientazioa” 1,75 puntuko berezko balio batekin, % 7,95 azalduz; eta F<sub>5</sub> “guraso izatearen rola baitaratzea” 1,72 puntuko berezko balio batekin, % 7,80 azalduz. Azterketa diskriminatzaileak erakutsi zuenez, ECPP eskalak partaideak diskriminatzen zituen sexuaren, lanbidearen eta egindako ikasketen artean, nahiz buruko nahasmendua zutenen eta kontrol-talde baten artean.

## 6.2.6 SPECI. Emozio- eta Jokaera-Arazoen Screeninga. (Garaigordobil eta Maganto, 2012)

### ***Galdetegiaren deskribapena***

SPECI galdetegia 5-12 urte bitarteko haurrengan Emozio- eta Jokaera-arazoak identifikatzeko diseinatutako tresna bat da, guraso eta irakasleen balioespenaren bidez. Dimentsio anitzeko tresna bat da, hamar item dituena. Hala, hamar arazo emozional edo portaerazko balioesten dira (*uzkurtasuna, somatizazioa, antsietatea, haur-dependentsia, pentsamendu arazoak, arreta-hiperaktibitatea, jokabide aztoratzailea, eskola-jarduera, depresioa eta jokaera oldarkorra*) arazoa irudikatzeko hainbat adibiderek. Hauek 0-2 bitarteko Likert eskala erabiliz erantzun behar da. Gainera, SPECI galdetegia arazo edo sintomak dauden ala ez zehazteko lagungarri izateaz gain, horien zehaztasun-maila ere neurtzen du. Puntuazio orokorraz gain, beste bi adierazle eskuratzen ditugu: Lehenik eta behin, *arazo barnerakoien* eskala bat, portaera emozionalen inguruan konfiguratua (gatazkak ebazteko modu desegokia adierazten duten portaerak, izan ere, horien adierazpena barnekoa da, inhibizioa eta pentsamenduaren asaldura, garapena eta haurraren portaera lehenetsiz). Bigarrenik, *arazo kanporakoien* eskala bat, gatazken kanpo adierazpenarekin gehiago lotzen dena (hainbat portaeren bidez, esate baterako, eraso, aktibazio edo deskarga bulkadatsua eta arlo akademikoari arreta eskaintzeko ezintasuna; hori guztiori jokabide aztoratzailekin, arretarik ezarekin eta hiperaktatibitate-sintomekin, eskola-jaruderrakin lotutako arazoekin eta indarkeriazko portaerarekin lotuta).

### ***Aplikazio, zuzenketa eta interpretaziorako arauak***

Irakasle edo tutoreak helarazi zaion galdetegia erantzun behar du. Galdetegi horretan ikaslea nahiz haren informatzailea identifikatzeko datuak ematen dira. Jarraian, 10 galdera erantzun behar ditu, Likert eskala batean planteatzen direnak, 0 (deus ez) eta 2 (asko) bitartean. Behin hori eginda, galdetegi hori zuzentzen duen profesionalak puntuazioak gehitu behar ditu. Horretarako, biribil batean sartu behar ditu lerro berean

dauden karratuan. Ondoren, puntuazioak modu bertikalean batzen dira. Horrela, “*arazo kanporakoiak*” eta “*arazo barnerakoiak*” kategorietako puntuazio zuzenak lortzen dira. Puntuazio horiek modu horizontalean batuta, testean puntuazio osoa lortzen dugu. Azkenik, hiru puntuazio horiek interpretazio-taulan islatzen dira. Taula horretan haurra hiru egoeratako batean dagoen berretsi ahal izango da: lehenengo egoera *EZ* da, non ez dagoen arazorik; bigarren egoerak *ARRISKUA* egon daitekeela adierazten du eta, horrenbestez, kasu horretan azterketa indibidual eta sakonagoa egitea komeniko litzateke; eta, azkenik, *ARAZO* egoerak haurrak emozio eta jokabideko arazoak izateko probabilitate handia dagoela adierazten du.

### ***Froga psikometrikoak***

Galdetegiaren barneko kontsistentzia aztertzeko Cronbachen fidagarritasun-koefizientea kalkulatu zen. Kalkulu horrekin barneko kontsistentzia egokia zela ikusi zen lagin kliniko osorako ( $\alpha = .80$ ), lagin arrunterako ( $\alpha = .73$ ), eta lagin osorako ( $\alpha = .82$ ). Ikerketa honetan Cronbachen Alpha bidez kalkulaturako barneko kontsistentzia egokia izan zen eskala orokorrerako ( $\alpha = .77$ ) irakasleen laginean eta gurasoen laginean ( $\alpha = .73$ ).

Probaren faktoreen baliotasuna frogatzeko, Kaiser-Meyer-Olking (KMO) izeneko laginaren egokitzapen-neurria eta Barletten esferikotasun-testa egin ziren. KMO indizeak 0,83 puntuko balioa eman zuen, egokitzat jo daitekeena. Barletten testa estatistikoki adierazgarria izan zen ( $\chi^2_{45} = 3.679, 61, p < 0,001$ ). Horren ondorioz, osagai nagusien azterketa egitea komenigarritzat ikusi zen. Varimax errotazio bidez unitatez gaindiko balioak zituzten bi faktore eskuratu ziren, bariantza osoaren % 53,49 azaltzekoak. Lehen faktorea “Arazo barnerakoiak” moduan izendatu zen, eduki emozional ageriko portaeren erreperitorio batez osatua. Portaera horiek gatazkak ebazteko ez-moldaerazko modua adierazten dute, hots, horien adierazpena barnekoa da, inhibizioa lehenetsiz eta haurraren pentsamendua, garapena eta autonomia asaldaturik geratuz. Lehen faktore horrek bariantzaren % 39,92 azaltzen du eta 6 kategoriekin osatzen da (Uzkurtasuna, Depresioa, Pentsamenduzko arazoak, Haur-dependenzia, Antsietatea eta Somatizazioa).

Bigarren faktorea “arazo kanporakoiak” bezala izendatzen da eta gatazken kanporako adierazpenarekin lotu zen, hau da, eraso kanporatzearekin, jarrera edo deskarga bulkadatsu batekin eta eskola-jarduerarari heltzeko gaitasunik ezarekin. Faktore hori lau kategoriaz osatuta geratu zen (jokaera aztoratzailea, Arreta-hiperaktibitatea, Eskola-jarduera eta jokaera oldarkorra), aldi berean, bariantzaren % 13,57 azaltzen dutenak. Aldagaien komunalitate-balioak 0,692-0,503 bitartekoak dira.

Irizpide-balioaren dagokionez, diagnostika egindako kategorietan arazo klinikoak dituzten eta ez dituzten partaideen puntuazioak alderatzeko bariantza ugari aniztundun azterketa (MANOVA) bat burutu ostean berretsi egiten da. Azterketa horren emaitzek (Pillairen Traza = 0,298,  $F(1, 1270) = 49,99$ ,  $p < 0,001$ ) agerian uzten dute bi lagin-multzoen arteko ezberdintasun estatistikoki adierazgarriak, eragin-tamaina handi batekin ( $\eta^2 = 0,298$ ;  $r = 0,54$ ). Azkenik, probak, era berean, emaitza asebetegarriak eman zituen. Horrela, berretsi egin zen iragarle modura duen balioa (irakaslearen balioespenaren emaitzen arteko kontingentziak SPECI probarekin eta psikologoek egindako ebaluazioarekin aztertuz) eta baita bere balioaren konbergente eta dibergentea (Spearmanen korrelazio-koefizienteak kalkulatu diagnostika egindako hamar kategorietako puntuazioen, arazo barnerakoi eta kanporakoiaren puntuazioen eta SPECI probaren puntuazio Osoaren artean eta ikastetxeko psikologoak edo orientatzaileak betetako partaide bakoitzaren galdetegi batekin jasotako ikerketako beste aldagai batzuen artean).

### 6.3 CHAPTER SUMMARY

Table. 6.2 Summary of the assessment tools and analysed variables

Assessment tool	Analysed variables
<b>Assesed by children</b>	
Cyberbullying: Screening of Peer Harassment (Garaigordobil, 2013)	Face-to-face bullying (physical, verbal, social and psychological aggressions) and Cyberbullying (15 behaviours). Four indexes: level of victimisation, perpetration, aggressive-victimisation and observation
Practicas educativas familiares [Family Educational Practices] (Alonso & Román, 2013)	Family Educational Practices Authoritarian practices Balanced practices Permissive practices
IECI. "Inventario de estrés cotidiano infantil" [Inventory of Children's Daily Stress] Trianes et al., 2011)	Children's Daily Stress: Health and psychosomatic problems Stress in the school setting Stress in the family sphere
<b>Assessment by parents</b>	
PSS. The Parental Stress Scale (Berry and Jones, 1995; Spanish adaptation by Oronoz, et al., 2007)	Parental Stress Gratifications Stressors
ECPP. Escala de compentencia parental percibida [The Perceived Parental Competence Scale] (Bayot & Hernandez, 2008)	Parental Competence School involvement Personal dedication Shared leisure Assesment and guidance Parental role acknowledgement
SPECI. "Screening de Problemas Emocionales y de Conducta Infantil" [Screening for Children's Emotional and Behavioral Problems] (Garaigordobil & Maganto, 2012)	Emotional and Behaviuoral Problems: Withdrawal Somatisation Anxiety Infantile-dependence Thought Problems Attention-hyperactivity Disruptive behaviour Poor academic achievement Depression Violent behaviour Three scales: Internalising problems scale Externalising problems scale Emotional and Behavioral Problems overall scale
<b>Assessed by teachers</b>	
SPECI. "Screening de Problemas Emocionales y de Conducta Infantil" [Screening for Children's Emotional and Behavioral Problems] (Garaigordobil & Maganto, 2012)	(as described above)

**Cyberbullying: Screening de acoso entre iguales** [Cyberbullying: Screening of Peer Harassment] (Garaigordobil, 2013) assesses both face-to-face bullying and

cyberbullying. The two scales (Bullying and Cyberbullying) provide four indicators: level of victimisation, aggression, bully-victimization, and observation, respectively. The Bullying Scale, made up of 12 items, assesses four types of bullying: Physical (aggressive actions aimed at a person's body, or indirect actions, aimed at their property); Verbal (negative verbal behaviours towards someone); Social (behaviours that isolate a person from the group); and Psychological (bullying behaviours to undermine a person's self-esteem and provoke insecurity and fear). The items are grouped according to the role played by the person being evaluated in the aggression situation: victim, aggressor or observer. The Cyberbullying Scale explores the roles of cybervictim, cyberaggressor and cyberobserver in 15 behaviours (45 items) related to technological bullying such as: sending offensive and insulting messages, making offensive calls, recording a beating and uploading it to YouTube, disseminating compromising photos or videos, stealing and disseminating photos, making anonymous to calls to frighten, blackmail, or threaten someone, sexual harassment, spreading rumours, secrets, and lies, stealing email passwords, faking photos or videos and uploading them to YouTube, isolating others from social networks, blackmailing with disclosing intimate details about someone, death threats, slandering.

On the two scales, participants report the frequency with which they have suffered, performed or seen others perform the behaviours, and whether they have heard that they had happened to someone they knew during the past year (Likert scale: 0 = Never, 1 = Sometimes, 2 = Quite a few times, 3 = Always). Using Cronbach's alpha, the psychometric studies confirmed the adequate internal consistency both of the Bullying Scale (global scale  $\alpha = .81$ , victimization factor  $\alpha = .70$ , aggression factor  $\alpha = .71$ , and observation factor  $\alpha = .80$ ) and of the Cyberbullying Scale (global scale  $\alpha = .91$ , cybervictimisation  $\alpha = .82$ , cyberaggression  $\alpha = .91$ , cyberobservation  $\alpha = .87$ ). Factor analysis confirmed a three-factor structure (victims, aggressors and observers) for both scales, which explains, respectively, 57.89 and 40.15% of the variance. Studies of convergent validity yielded positive correlations between aggression and aggressive conflict resolution, antisocial behaviour, psychopathological disorders, academic problems, neuroticism... and negative correlations with empathy, emotion regulation, responsibility, and social adjustment.

**PEF. *Prácticas educativas familiares*** [*Family Educational Practices*] (Alonso & Román, 2013). The PEF-H2, collects the children's perception, through a questionnaire of individual or collective application, of 27 items, over the following 3 educational styles: (a) Authoritarian practices (use of the affirmation of power with coercive discipline techniques, clearly prioritizes compliance with standards. Low expression of affection and communication and highly controlling); (b) balanced practices: (high values of affection and interest, there are clear and stable rules, inductive discipline, and sensitive to the needs of the child) and; (c) permissive practices (a high expression of affection, but low levels of exigency and control). The Cronbach alpha coefficient on the PEF-H2 (abbreviated) scale was slightly lower than the wide scale ( $\alpha = .77$ ), obtaining coefficients in all its factors close to .60. In the sample of this study the consistency of the abbreviated scale was acceptable for the whole of the test  $\alpha = .68$ .

**IECI. "Inventario de estrés cotidiano infantil"** [Inventory of Children's Daily Stress] (Trianes et al., 2011). This assesses three spheres of childhood stress in boys and girls from 6 to 12 years: (1) Health and psychosomatic problems (illnesses, visits to the doctor, or minor ailments such as headaches, nausea, etc.); (2) Stress in the school setting (excess of homework, teacher-student interaction problems, low school grades, relational difficulties with classmates); (3) Stress in the family sphere (situations such as lack of contact and parental supervision, perceived loneliness, fights among siblings, or parents' demands). The integration of all three factors of the test provides a score of general stress. It contains 22 dichotomous items describing the occurrence of different events, demands, and annoyances arising in the daily interaction with the environment that can provoke an emotional reaction and that may adversely affect the development of school-age children. The internal consistency of the IECI was adequate in the original sample ( $\alpha = .81$ ), and somewhat lower in the sample of this study ( $\alpha = .69$ ).

**PSS. *The Parental Stress Scale*** (Berry and Jones, 1995; Spanish adaptation by Oronoz, et al., 2007). This questionnaire focuses specifically on the stress generated by the parenting role, as opposed to other instruments that fail to separate parenting stress from the stress as a result of other roles and situations, such as financial or marital problems, or to those instruments that assess the stress generated by the parenting role



only in a very specific situation. The PSS is made up of 12 items rated on a Likert type scale (from 1 "Strongly disagree) to 5 (Strongly agree) that describe the parent-child relationship and how each parent feels about it. It renders punctuation for two scales Stressors (product of rearing a child) and Parenting Rewards (rewards obtained as a product of rearing the child), and an Overall Parenting Stress Scale. Regarding the reliability of the scale, a Cronbach Alpha of .77 and .76 was obtained for the gratification factors and stressors respectively, which demonstrates an adequate internal consistency. In the sample of this study the factors gratification and stressors and obtained an Alpha of Cronbach of .69 and .73 respectively and .72 for the scale as a whole.

***ECCP. Escala de competencia parental percibida*** [*The Perceived Parental Competence Scale*] (Bayot & Hernandez, 2008) (ECCP-P) reports on the total competence to be a parent, as perceived by the parents. It is composed of 22 items with a 4-point Likert response scale (Never, sometimes, almost always and always), which comprises school involvement; b) personal dedication; c) shared leisure; d) assessment and guidance; and f) parent role acknowledgement for parents with children between the ages of 3 and 18. The whole scale shows a Cronbach Alpha coefficient of .86 indicating that it has an adequate internal consistency. In our sample, the Cronbach Alpha coefficient of the scale was .83.

***SPECI. "Screening de Problemas Emocionales y de Conducta Infantil"*** [*Screening for Children's Emotional and Behavioural Problems*] (Garaigordobil & Maganto, 2012). This identifies emotional and behavioural problems (EBP) in children from 5 to 12 years through their parents' and teachers' appraisals. Ten EBP or diagnostic categories (withdrawal, somatisation, anxiety, infantile-dependence, thought problems, attention-hyperactivity, disruptive behaviour, academic achievement, depression, and violent behaviour) are appraised through a series of illustrative examples of the problem, that are rated on a Likert scale (0 = *Not at all*, 1 = *Quite a lot*, 2 = *Very much*). Besides a global score in EBP, two factors are obtained: (1) internalising problems, consisting of behaviours of emotional content, behaviours that indicate inadequate conflict resolution, as they manifest conflicts internally (withdrawal, somatisation, anxiety, infantile-dependence, thought problems, depression); and (2) externalising problems, more related

to the external expression of conflicts (attention-hyperactivity, disruptive behaviour, poor academic achievement, and violent behaviour). Internal consistency of the teachers' assessment was adequate for the global scale ( $\alpha = .82$ ), in the same direction as that obtained with the sample of this study (teachers  $\alpha = .77$ ; parents  $\alpha = .73$ ).

---

## **7. KAPITULA DISEINUA ETA PROZEDURA**

---



## 7. KAPITULUA. DISEINUA ETA PROZEDURA

Zeharkako ikerketa honetan korrelaziozko diseinu deskribatzailea erabili da. Alde batetik, metodologia deskribatzaile eta konparaziozkoa erabili da, sexuaren, ikasturtearen eta ikastetxearen sarearen arabera biktimizazioa, erasoak, behaketa eta biktimizazio erasotzailearen artean alderik zegoen aztertzeko. Bestetik, korrelaziozko metodologia erabili da irakasle, guraso eta horien seme-alaben datuen arteko harremanak aztertzeko. Baita bullying eta cyberbullyingeko lehen aipatutako lau rolekin zein familia-aldagai edo aldagai pertsonalek harremana duten ikusteko ere.

Honako prozedura hau jarraitu zen: Lehenik eta behin, Euskadiko hiru probintzietan Lehen Hezkuntzako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeen zerrenda eskuratu zen. Hainbat ikastetxe hautatu ziren, horien banaketa probintzia eta sarearen arabera kontrolatuz. Ondoren, mezu elektronikoa bidali zitzaieen haiekin harremanetan jartzeko eta ikerketa-proiektua azaltzeko. Mezu elektronikoa bidali eta astebete edo bi aste igaro ondoren, ikastetxeetako zuzendariari telefonoz deitu zitzaieen ikerketan parte hartzeko zuten interesa ezagutzeko asmoz, eta haren helburuak, xedea eta baldintzak azaltzeko (irakasleen parte-hartzea, beharrezko saioak...).

Ikerketan parte hartzea onartu ondoren, baimen informatua bidali zitzaieen, ikerketan parte-hartzea baimentzeko haurren gurasoek sinatu beharrekoa (bai gurasoek baita haurrek ere). Parte hartzeko interesik ez bazuten, beren arreta eskertu eta beste ikastetxe bat hautatzen zen. Parte hartzeko prest agertu ziren ikastetxeekin, baimen informatuak bidali eta astebetara, ikertzailea berriro ere harremanetan jarri zen parte-hartzaileen kopurua ezagutzeko eta ikasleek test-bateria betetzeko egunak adosteko. Adostutako egunetan ikastetxera joan, ikasgeletan probak banatu eta egunean bertan bi gutun-azal eman zituen doktoregaiak: batak aita-amek bakarka bete beharreko test-bateria zuen eta, besteak, irakasleek ikasle bakoitzari buruz bete beharreko bateria. Azkenik, ikastetxeekin azken bi material horiek jasotzeko egun bat adostu zen, materialak behar bezala betetzeko denbora nahikoa emanik (bizpahiru aste).

Zenbaki-kode bat jarri zen gurasoen, irakasleen, zein haurren ebaluazio-tresnen baterietan. Horrek galdeketa bakoitza lotzeko aukera ematen zuen, ikaslearen izena aipatu gabe eta anonimatuari eutsiz, baina ikertzaileek haien identitatea jakinda, arrisku-egoeran egoteko kasuan.

Hautatutako tresnen luzeera, iraupena, zailtasuna eta gaia, eta umeen adina kontuan izanik, egokientzat jo zen bi saio egitea, haurrek testak behar bezala betetzeko aukera izan zezaten. Bi saioak honela banatu ziren: Lehenbizikoan identifikazio pertsonaleko datuak eta “Cyberbullying: Berdinen arteko jazarpenaren Screeninga” testa bete zituzten; azken horretan azalpen bat eman behar zen, eta denbora eta ulermen gehiago eskatzen zuen. Bigarren saioan test-bateriaren bigarren zatia bete zuten, honako bi galdeketa zituen: “PEF-H2. “Familiako Heziketa-praktikak” identifikatzeko eskala. (Alonso eta Roman, 2003)” eta “IECI. Haurren eguneroko estresaren inbentarioa (Trianes et al., 2011).”.

Gurasoei aplikazio-koaderno bakarra eman zitzaion, honako tresna-bateriez osatua: “SPECI. Emozio- eta Jokaera Arazoen Screeninga (Garaigordobil eta Maganto, 2012)”, “PSS. Guraso-estresaren eskala (Berry eta Jones, 1995; espainierazko egokitzea Oronoz, Alonso-Arbiol eta Balluerka, 2007)” eta “ECP. Hautemandako guraso-gaitasunaren eskala (Bayot eta Hernandez, 2008) baita informazio-gutun bat ere. Azken horretan beren kolaborazioaren garrantzia azaltzen zen berriro ere, kolaboratu izanagatik eskerrak eman, ikerketaren inguruko galderak argitzeko telefono-kontaktua luzatu eta jarraitu beharreko prozedura azaltzen zen, hots, beren seme-alabek eskola-tutoreari eman beharreko gutun-azala itxi behar zutela. Eskola-tutoreek, aldi berean, “SPECI. Emozio- eta Jokaera Arazoen Screeninga (Garaigordobil eta Maganto, 2012)” galdeketa jaso zuten, ikasle bakoitzeko bete beharrekoa. Ikastetxean ikerketa koordinatzeko arduradunak gainbegiratu zuen gurasoen eta irakasleen gutun-azalen bilketa. Gutxi gorabehera bizpahiru aste igaro ondoren, ikertzaileak material hori guztia bildu zuen.

Azkenik, parte hartu zuten ikastetxeei eskerrak ematearren, txosten indibidualak bidali zitzaizkien honako informazio honekin: beren ikastetxeetan lortutako emaitzak

(bullying eta cyberbullying kasuetako biktima, erasotzaile, behatzaile eta biktima-erasotzaileen roletan inplikaturako ikasleen frekuentziak eta ehunekoak) eta beren ikastetxeen inguruko balorazio labur bat.

Proiektuak gizakiekin burututako ikerketetan eskatzen diren balore etikoak bete ditu eta Helsinkiko Deklarazioan jasotzen diren funtsezko oinarriak errespetatu ditu, bere aktualizazioetan eta indarrean dauden arauetan (baimen informatzailea eta informaziorako eskubidea, datu pertsonalen babesa eta konfidentzialitate bermea, diskriminazio eza, doakotasuna, eta ikerketa uzteko aukera edozein fasetan). Gainera, ikerketak aldeko ebaluazioa jaso du Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Irakaskuntzaren eta Ikerkuntzaren Etikarako Unibertsitate Batzordearen (IIEUB) eskutik (CEISH/229/2013).

## 7.1 CHAPTER SUMMARY

To carry out this research, a descriptive and comparative methodology was used to analyse the differences between victimisation, aggression, observation, and aggressive-victimisation of bullying and cyberbullying, based on gender, grades, and types of networks to which the school belongs. Additionally, a correlational methodology was used to analyse relationships of information delivered by teachers and parents as well as data delivered by minors, to find out which personal or family variables are related to victimisation and aggression when dealing with bullying and cyberbullying.

Regarding the procedure, firstly, an email was sent to randomly selected schools, with an explanation of the research to be carried out. After schools had agreed to participate, they were sent informed consent forms for parents and participants. Student questionnaires were completed in groups in the school classrooms over two meetings, and questionnaires were sent to parents and teachers. The collection of questionnaires was supervised by the person in charge of coordinating the research at the school. After one month, all materials were collected at the school. Finally, to thank participating schools, an individual report was sent to inform them of their results (rates and percentages of students involved in bullying and cyberbullying as victims, aggressors,

observers, and aggressive-victims). A brief evaluation of these results was also included. This research fulfilled the ethical values required for research with human beings and received a favourable report from the ethics committee of Universidad del País Vasco (CEISH/229/2013).



---

## **8. KAPITULUA EMAITZAK**

---



## **8. KAPITULUA: EMAITZAK**

8. kapituluan ikerketa honen emaitzak aztertzen dira atal ezberdinetan banatuta. Horrela, lehenik eta behin, eta bullyingari dagokionez, inplikatuaren prebalentzia eta analasi diferentzialak aurkezten dira (8.1). Aurrerago, analasi hauek errepikatu dira cyberbullyinga aztertzeko (8.2). Azkenik, bullying eta cyberbullyingak aldagai pertsonal eta familiarrekin dituen loturak aztertu dira (8.3). Horrez gain, kapitularen amaieran emaitza guztien laburpen kuadroa aurkezten da (8.4) non bullying eta cyberbullyingean aurkitutako emaitzak era erraz batean alderatzeko.

### **8.1 BULLYING: PREBALENTZIA ETA ANALISI DIFERENTZIALAK**

Atal honen helburua izan da biktimek, erasotzaileek eta behatzaileek aditzera emandako aurrez aurre egindako bullying erasoen (eraso fisikoa, ahozko eraso, eraso soziala eta eraso psikologikoa) prebalentzia aztertzea. Horretarako, lehenik eta behin, inplikatuaren (biktimak, erasotzaileak eta behatzaileak) ehuneko eta maiztasunak finkatu dira emaitzak batera ikusteko. Aldi berean, elkarren artean baztertzailak diren hiru kategoria (partehartzaile rol) ezarri dira: “biktima-hutsak” (erasoen biktima izan dira, baina ez dute erasorik egin), “erasotzaile-hutsak” (ez dira biktima izan, baina erasoak egin dituzte) eta “biktima-erasotzaileak” (biktima eta erasotzaile izan direnak). Halaber, lehen aipatutako eraso-moduen maiztasuna aztertu da, prebalentzia orokorra (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti” erantzunei dagokie) eta prebalentzia larria (“sarritan” eta “beti” erantzunei dagokie) identifikatuz.

Bigarrenik, parte-hartzaileen analasi diferentzialak burutu dira, sexuaren, ikasmailaren eta ikastetxearen sarearen arabera. Ondorengoak identifikatu dira: 1) Rol bakoitzeko (biktima-hutsa, erasotzaile-hutsa, biktima-erasotzailea eta behatzailea) inplikatuaren pertsonen maiztasunak eta ehunekoak; 2) biktimen, erasotzaileen (biktima guztiak nahiz erasotzaile guztiak kontuan hartuz, ez soilik biktima-hutsak eta erasotzaile-hutsak) eta behatzaileen maiztasuna eta ehunekoa, aztertutako portaera erasokor mota


ezberdinetan (fisikoak, ahozkoak, sozialak eta psikologikoak); eta 3) ikergai den portaera bakoitzean portaera zenbat bider pairatu, egin eta behatu den.

### 8.1.1 Bullying: biktima, erasotzaile, biktima-erasotzaile eta behatzaileen prebalentzia

#### 8.1.1.1 Bullying: Prebalentzia Orokorra eta larria

Bullyingaren prebalentzia orokor eta larria aztertzeko asmoz, lehenik eta behin, biktima, erasotzaile eta behatzaileen, maiztasunak eta ehunekoak kalkulatu ziren azken urtean aurrez aurre gertatutako bullying egoera batean edo gehiagotan (portaera orokorrak). Emaitzak 8.1. Grafikoan islatzen dira eta jarraian deskribatzen dira.

8.1 Grafikoa. Inplikatuak (biktimak, erasotzaileak eta behatzaileak) ehunekoak lagin orokorraren gainean




- Bosgarren eta seigarren mailako haurren % **79,1** ( $n = 1.576$ ) biktima, erasotzaile edo behatzaile rolean aurrez aurreko bullying jokaeretan **inplikaturik** egon da.
- % **44,2ak** ( $n = 880$ ), adierazi du azken urtean, beste kide batzuek portaera erasokor bat edo gehiago **pairatu dituela**.
- % **30ak** ( $n = 597$ ), adierazi du azken urtean, beste kide batzuei portaera erasokor bat edo gehiago **egin dizkiola**.
- % **72,3ak** ( $n = 1.441$ ), azken urtean, bere kideen arteko jokabide erasokor bat edo gehiago **behatu du** edo hauen berri izan du.

Osagarri modura, kontingentzia-azterketek erakutsi dutenez, biktima ( $n = 880$ ) izandakoen % **54,1** erasotzaile ere izan dira, hau da, **biktimen** erdia baino gehiagok azken urtean **jokaera erasokorrek ere egin ditu**.

Honez gain, biktima-huts, erasotzaile-huts eta biktima-erasotzaileen ehunekoak aztertu ziren. Emaizak 8.2. Grafikoan islatzen dira eta jarraian interpretatzen dira.

8.2. Grafikoa. Lagina biktima-huts, erasotzaile-huts eta biktima-erasotzaileen artean banatuta





- **Biktima-hutsak:** laginean parte hartu duten haurren % **20,3** ( $n = 404$ ) bullying portaeren biktima izan da, baina ez du erasorik egin.
- **Erasotzaile-hutsak:** haurren % **6,1ak** ( $n = 121$ ) beraien kideen aurkako aurrez aurreko erasoak egin ditu, baina ez dira biktima izan.

- **Biktima-erasotzaileak:** haurren % 23,9 ( $n = 476$ ) biktima izan dira eta, aldi berean, bere kideen aurkako erasoak egin ditu.

Jarraian, analisi berdinak errepikatu ziren, biktima larrien, erasotzaile larrien eta behatzaile larrien prebalentzia finkatzeko. Kasu honetan “sarritan” eta “beti” maiztasunak soilik hartu ziren kontuan. Hau da, azken urtean portaerak “sarritan” eta “beti” pairatu, egin eta behatu dituztenenak. 8.3. Grafikoak emaitzak erakusten ditu eta jarraian interpretatzen dira.

8.3. Grafikoa. Inplikatuak (biktimak, erasotzaileak eta behatzaileak eta biktima-erasotzaile larriak eta noizbehinkakoak) ehunekoak laginaren gainean






- Ikerketan parte hartu duten haurren % **40k** ( $n = 797$ ) adierazi du azken urtean bullying egoera batean modu **larrian inplikatuta** egon dela.
- Ikerketan parte hartu duten haurren % **15,2ak** ( $n = 303$ ) adierazi du azken urtean kideengandik jokaera erasokor **larriak pairatu dituela**.
- Ikerketan parte hartu duten haurren % **3,6ak** ( $n = 72$ ) adierazi du azken urtean kideengandik jokaera erasokor **larriak egin dituela**.
- Ikerketan parte hartu duten haurren % **34,5ak** ( $n = 687$ ) azken urtean kide batzuek beste batzuen aurka maiz egindako jokaera erasokor **larrien berri izan du edo behatu egin ditu**.

Osagarri modura, azterketek erakutsi dutenez, biktima larri izandakoen ( $n = 303$ ) artean % **13,2ak** maiz egin ziela eraso kideei. Hau da, **biktima-erasotzaile larriak direla**.

Modu horretan, eta emaitzek erakusten dutenez, lagina 8.4. Grafikoan islatzen den moduan osatzen da, zeina orain deskribatzen baita.

#### 8.4. Grafikoa. Lagina biktima-huts larri, erasotzaile-huts larri eta biktima-erasotzaile larrien artean banatuta



- **Biktima-huts larriak: % 13,2ak** ( $n = 263$ ) adierazi du azken urtean aurrez aurreko bullying portaeren oso maiz biktima izan dela, baina ez erasotzaile.
- **Erasotzaile-huts larriak: % 1,6ak** ( $n = 32$ ) adierazi du azken urtean aurrez aurreko bullying portaerak oso maiz egin dituela, baina ez du halako jokaerarik jasan.
- **Biktima-erasotzaile larriak: ikerketan parte hartu duten haurren % 2ak** ( $n = 40$ ) adierazi du azken urtean sarritan bullying portaeren biktima eta erasotzaile izan dela.

##### 8.1.1.2 Bullyinga: Biktima, erasotzaile eta behatzaileen ehuneko eta maiztasunak aurrez aurreko portaeretan

Jazarpen-modu ezberdinetan (fisikoa, ahozkoa, soziala eta psikologikoa) sakontzeko asmoz, azken urtean biktima, erasotzaile eta behatzaile izan direla berretsi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak aztertu dira eraso mota bakoitzean. Azterketa horretarako biktima guztiak (ez soilik biktima-hutsak) eta erasotzaile guztiak (ez soilik erasotzaile-hutsak) hartu dira kontuan. Ehuneko orokorrek jokaerak “batzuetan”, “sarritan” eta “beti” pairatu, egin edo behatu dituzten parte hartzaileen ehunekoa adierazten dute, eta ehuneko larriek ebaluatutako portaeretakoren bat “sarritan” eta “beti” pairatu, egin edo behatu duten parte hartzaileen ehunekoa adierazten dute.

Biktimek, erasotzaileek eta behatzaileek eskuratutako emaitzak 8.1. Taulan eta 8.5. Grafikoan; 8.2 Taulan eta 8.6. Grafikoan; eta 8.3. Taulan eta 8.7. Grafikoan erakusten dira hurrenez hurren.




### 8.1. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren biktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen ehunekoak

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti	
	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%
Eraso fisikoa	1.583	79,4	309	15,5	89	4,5	12	0,6
Ahozko erasoak	1.263	63,4	516	25,9	180	9,0	34	1,7
Eraso soziala	1.623	81,4	254	12,7	99	5,0	17	0,9
Eraso psikologikoa	1.697	85,2	204	10,2	72	3,6	20	1,0

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak

### 8.5. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren (orokorra eta larria) biktimen ehunekoak



Ikus daitekeenez, (8.1 Taulan eta 8.5. Grafikoa) **biktimen** ikuspegitik, orokorki (batzuetan, sarritan eta beti) gehien pairatzen dituzten jokaera erasokorrak ahozko erasoak dira (% 36,6), ondoren fisikoak (% 20,6), sozialak (% 18,6) eta psikologikoak (% 14,8) hurrenez hurren. Maiztasun larriak aztertuz gero (sarritan eta beti), maiztasun handiz pairatzen direnak ahozko erasoak dira (% 10,7), ondoren eraso sozialak (% 5,9), eraso fisikoak (% 5,1) eta, azkenik, eraso psikologikoak (% 4,6).


Jarraian, erasotzaileek adierazitako bullying jokaera ezberdinen maiztasun eta ehunekoak eta horien irudikapen grafikoa aurkezten dira.

### 8.2 Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren erasotzaile direla adierazten duten parte-hartzaileen maiztasun eta ehunekoak

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti	
	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%
Eraso fisikoa	1.750	87,8	220	11,0	22	1,1	1	0,1
Ahozko erasoak	1.517	76,1	434	21,8	34	1,7	8	0,4
Eraso soziala	1.803	90,4	171	8,6	18	0,9	1	0,1
Eraso psikologikoa	1.888	94,7	88	4,4	13	0,7	4	0,2

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak

## 8.6. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren (orokorra eta larria) erasotzaileen ehunekoak



Erasotzaileen ikuspegitik (8.2. Taula eta 8.6. Grafikoa), datuek biktimen kasuan adierazitako egoera bera adierazten dute. Gainera, erasotzaileen adierazpenak aztertzerakoan ikusi da, azken urtean, maila orokorrean (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) erasorik ohikoenak ahozko erasoak (% 23,9) izan direla esan daiteke, jarraian eraso fisikoak (% 12,2), sozialak (% 9,6) eta psikologikoak (% 5,3) izan dira gehien errepikatu direnak. Erasoa larritasunari erreparatuz (sarritan eta beti) ikusi da, erasotzaileen % 2,1ak oso maiz ahozko erasoak. Honez gain, % 1,2ak eraso fisikoak egin ditu, % 1ak eraso sozialak eta soilik % 0,9ak eraso psikologikoak, betiere maiztasun handiz eta azken urtean.


Jarraian, aurrez aurreko erasoaren behatzaileek adierazitako bullying jokabide ezberdinen maiztasun eta ehunekoak eta horien irudikapen Grafikoa aurkezten dira.

## 8.3. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren behatzaile direla adierazten duten parte-hartzaileen maiztasun eta ehunekoak

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Betia	
	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%
Eraso fisikoa	976	48,9	659	33,1	292	14,7	66	3,3
Ahozko erasoak	717	36,0	740	37,1	424	21,3	112	5,6
Eraso soziala	1.122	56,3	568	28,5	224	11,2	79	4,0
Eraso psikologikoa	1.330	66,7	446	22,4	155	7,8	62	3,1

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak

## 8.7. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren (orokorra eta larria) erasotzaileen ehunekoak



**Behatzaileen** inguruko informazioa (8.3. Taula eta 8.7 Grafikoa) korapilatsuagoa da interpretatzeko. Izan ere, hainbat behatzailek biktima edo erasotzaile beraren berri izan dezakete. Hori dela eta, horien ehunekoak ezin dira alderatu biktima eta erasotzaileen ehunekoekin. Behatzaileek ahozko jokabideetan (% 64), adierazi dute prebalentzia handiena. Ondoren eraso fisikoak (% 51,1), eraso sozialak (% 43,7) eta psikologikoak (% 33,3) aipatu dituzte sarrien. Halako jokabideak oso maiz ikusi dituzten (sarritan eta beti) behatzaileen ehunekoa aztertzean ikus daitekeenez, behatutako erasoen % 26,9 ahozko erasoak izan dira, % 18 eraso fisikoak, % 15,2 eraso sozialak eta % 10,9 eraso psikologikoak.

**Laburbilduz, biktima zein erasotzaileak bat datoz maizen ematen diren erasoak (% 36,6 eta % 23,9 hurrenez hurren, era orokorrean) ahozko erasoak direla adieraztean. Erasotzaileak dira maizen ematen diren bigarren erasoak (% 20,6 eta % 12,2 hurrenez hurren, era orokorrean). Hirugarrenik, eraso sozialak (% 18,6 eta % 9,6 hurrenez hurren, era orokorrean) aurkitzen dira. Azkenik, biktimak eta erasotzaileak bat datoz eraso psikologikoak maiztasun gutxienez errepikatzen diren erasoak direla adieraztean (% 14,8 eta % 5,3 hurrenez hurren, era orokorrean).** Behatzaileek emandako informazioan erreparatuta ikus daitekeenez, datuek joera bera erakusten dute maiztasunari dagokionez eraso mota ezberdinetan. Informazio horrek biktima eta erasotzaileen artean adostasun-maila handia dagoela erakusten du, eta jokabide erasokorren prebalentzia kontuan hartzeko modukoa dela berresten du.

## 8.1.2 Bullying: Sexuaren araberako aldeak

### 8.1.2.1 Bullying: Neska eta mutilen ehunekoak, biktima-hutsak, erasotzaile-hutsak, biktima-erasotzaileak eta behatzaileak


Lehenik eta behin, bullyingean sexuaren araberako ezberdintasunak zehazte aldera, kontingentzia eta khi-karratuaren azterketak gauzatu ziren bi aldagaien artean. Batetik parte-hartze rola biktima-hutsa, erasotzaile-hutsa, biktima-erasotzailea eta behatzailea. Bestetik sexua. Emaitzak 8.4. Taulan erakusten dira eta 8.8 Grafikoan islatzen dira.

8.4. Taula. Bullyingaren biktima-huts, erasotzaile-huts, biktima-erasotzaile eta behatzaileen maiztasunak eta ehunekoak (sexuaren barnean) sexuaren arabera

	Mutilak ( $n = 1.000$ )		Neskak ( $n = 993$ )		$\chi^2$	$p$
	$f$	%	$f$	%		
Biktima-hutsa ( $n = 404$ )	198	19,8	206	20,7	0,28	.600
Erasotzaile-hutsa ( $n = 121$ )	59	5,9	62	6,2	0,10	.748
Biktima-erasotzailea ( $n = 476$ )	309	30,9	167	16,8	54,35	.000
Behatzailea ( $n = 1.441$ )	741	74,1	700	70,5	3,24	.072

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

8.8. Grafikoa. Biktima-huts, erasotzaile-huts, biktima-erasotzaile eta behatzaileen ehunekoak sexuaren arabera



8.4. Taulan, datu hauek aurki ditzakegu:

**Biktima-hutsak:** Haurren artean, mutilen % **19,8ak** ( $n = 198$ ) eta nesken % **20,7ak** ( $n = 206$ ) adierazi du azken urtean beste kide batzuegandik jokabide erasokor bat edo gehiago pairatu dituela. Biktima-huts guztiak kontuan hartuta (laginaren % 20,3),

% 10 mutilak dira eta % 10,3 neskek. Kontingentzia analisia ez da esanguratsua izan, izan ere, biktima-hutsa izan den **mutil eta nesken ehunekoa antzeko da** ( $\chi^2 = 0,28$ ,  $p = .600$ ).

**Erasotzaile-hutsak:** Mutilen % **5,9ak** ( $n = 59$ ) eta nesken % **6,2ak** ( $n = 62$ ) azken urtean beste batzuen aurka bullying ekintza bat edo gehiago egin dituela adierazi du. Erasotzaile-huts guztiak kontuan hartuz (laginaren % 6,1), % 3 mutilak dira eta % 3,1 neskek. Kontingentzia analisia ez da esanguratsua izan, izan ere, erasotzaile-hutsa izan den **mutil eta nesken ehunekoa antzeko da** ( $\chi^2 = 0,10$ ,  $p = .748$ ).

**Biktima-erasotzaileak:** Mutilen % **30,9ak** ( $n = 309$ ) eta nesken % **16,8ak** ( $n = 167$ ) adierazi du azken urtean, beste kide batzuek edo/eta beste kide batzuei jokabide erasokor bat edo gehiago jasan/egin dituela. Biktima-erasotzaile guztiak kontuan hartuz (laginaren % 23,9), % 15,5 mutilak ziren eta % 8,4 neskek. Kontingentzia analisia esanguratsua izan da, izan ere, **biktima-erasotzaileen artean mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa da** ( $\chi^2 = 54,17$ ,  $p < .001$ ).

**Behatzaileak:** Mutilen % **74,1ak** ( $n = 741$ ) eta nesken % **70,6ak** ( $n = 700$ ) azken urtean beste kide batzuen arteko jokabide erasokor bat edo gehiago behatu dituela adierazi du. Behatzaile guztiak kontuan hartuz gero (laginaren % 72,3), % 37,2 mutilak ziren eta % 35,1 neskek. Honebestez, esan dezakegu kontingentzia analisia ez dela esanguratsua izan, izan ere, behatzaile izan diren **mutilen eta nesken ehunekoa antzeko izan da** ( $\chi^2 = 3,24$ ,  $p = .072$ ).

#### 8.1.2.2 Bullying: Aurrez aurreko jokaeren biktima, erasotzaile eta behatzaile izandako ikasleen ehunekoa mutil eta nesketan

Ondoren, kontingentzia eta khi-karratu azterketen bidez, aurrez aurreko bullying jokabide bakoitzeko (fisikoak, ahozkoak, sozialak eta psikologikoak) biktima, erasotzaile eta behatzaile izan direla adierazi zuten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak aztertu dira, sexua aintzat hartuz. Azterketa horretarako biktima guztiak (ez soilik biktima-hutsak) eta erasotzaile guztiak (ez soilik erasotzaile-hutsak) hartu ziren kontuan. Datozen Taula eta grafikoetan, eskuratutako emaitzak aztertu eta biktima (8.5 Taula, 8.9.


Grafikoa), erasotzaile (8.6 Taula eta 8.10 Grafikoa) eta behatzaile (8.7. Taula eta 8.11. Grafikoa) izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera erakusten dira.

8.5. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren biktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak		
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Eraso fisikoa	733 (73,3)	850 (85,6)	198 (19,8)	111 (11,2)	62 (6,2)	27 (2,7)	7 (0,7)	5 (0,5)	47,21	.000
Ahozko erasoa	558 (55,8)	705 (71,0)	301 (30,1)	215 (21,7)	121 (12,1)	59 (5,9)	20 (2,0)	14 (1,4)	53,83	.000
Eraso soziala	814 (81,4)	809 (81,5)	132 (13,2)	122 (12,3)	47 (4,7)	52 (5,2)	7 (0,7)	10 (1,0)	1,17	.761
Eraso psikologikoa	827 (82,7)	870 (87,6)	123 (12,3)	81 (8,2)	37 (3,7)	35 (3,5)	13 (1,3)	7 (0,7)	11,57	.009

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi-karratua, *p* = esangura

8.9. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren biktimen ehunekoak sexuaren arabera



8.5 Taulan eta 8.9. Grafikoan ikus dezakegunez, biktimen ehunekoetan alde adierazgarriak aurki ditzakegu aztertutako aurrez aurreko lau erasoetatik hirutan: eraso fisikoetan (mutilen % 26,7 eta nesken % 14,4), ahozko erasoetan (mutilen % 44 eta nesken % 29) eta eraso psikologikoetan (mutilen % 17,3 eta nesken % 12,3). Hiru kasu hauek sakonago aztertuz gero, jokabide hauen biktima izan direla adierazi dutenen artean, handiagoa da mutilen ehunekoak. Halaber, aipatu beharra dago, eraso sozialaren jokabideri dagokionez, ez dela alderik hauteman sexuaren arabera.

Sexu bakoitza aztertuz gero, esan daiteke mutilek gehien pairatzen dituzten erasoak ahozko erasoak direla (% 44,2 orokorki eta % 14,1 modu larrian). Honen ondoren eraso fisikoak aurkitzen dira (% 26,7 orokorki eta % 6,9 modu larrian), gero eraso sozialak (% 18,6 orokorki eta % 5,4 modu larrian) eta, azkenik, eraso psikologikoak (% 17,3 orokorki eta % 5 modu larrian).

Bestalde, nesken kasuan, eta mutilen kasuan gertatzen zen moduan, ahozko erasoak dira gehien pairatzen dituzten erasoak (% 29 orokorki eta % 7,3 modu larrian) erasoak. Ondoren, eta mutiletan gertatzen ez zen bezala, eraso sozialak pairatzen dituzte gehien (% 18,5 orokorki eta % 6,2 modu larrian). Ondoren, eraso fisikoak aurkitzen dira (% 14,4 orokorki eta % 3,2 modu larrian). Azkenik, eraso psikologikoak (% 12,4 orokorki eta % 4,2 modu larrian) dira maiztasun gutxien erakusten dutenak.


Mutil eta neska erasotzaileek adierazitako datuak 8.6. Taulan erakusten dira eta 8.10. Grafikoan islatzen dira.

8.6. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren erasotzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak		
	<i>f</i>	<i>f</i>	<i>f</i>	<i>f</i>	<i>f</i>	<i>f</i>	<i>f</i>	<i>f</i>		
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)		
Eraso fisikoa	827 (82,7)	923 (93)	159 (15,9)	61 (6,1)	13 (1,3)	9 (0,9)	1 (0,1)	0 (0,0)	50,51	.000
Ahozko eraso	693 (69,3)	824 (83)	279 (27,9)	155 (15,6)	22 (2,2)	12 (1,2)	6 (0,6)	2 (0,2)	51,49	.000
Eraso soziala	900 (90,0)	903 (90,9)	90 (9)	81 (8,2)	10 (1,0)	8 (0,8)	0 (0,0)	1 (0,1)	1,67	.645
Eraso psikologikoa	929 (92,9)	959 (96,6)	61 (6,1)	27 (2,7)	8 (0,8)	5 (0,5)	2 (0,2)	2 (0,2)	14,24	.003

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

### 8.10. Grafiko. Aurrez aurreko portaeren erasotzaileen ehunekoak sexuaren arabera



8.6. Taulan eta 8.10. Grafikoan alde adierazgarriak ikus ditzakegu erasotzaile diren mutil eta nesken ehunekoi dagokionez aztertutako aurrez aurreko lau erasoetatik hirutan: eraso fisikoetan (mutilen % 17,3 eta nesken % 7), ahozko erasoetan (mutilen % 30,7 eta nesken % 18,8) eta eraso psikologikoetan (mutilen % 7,1 eta nesken % 3,4). Hiru kasu horietan jokabidea gauzatzen duten mutilen ehunekoak nabarmenki handiagoa da. Alabaina, eraso sozialen ehunekoari erreparatuz gero, esan daiteke ez dela mutil eta nesken artean alderik hauteman egindako erasoaren ehunekoan.

8.6. Taulan jasotzen den moduan mutilek, nagusiki, ahozko erasoak egiten dituzte (% 30,7 orokorki eta % 2,8 modu larrian). Honen ondoren eraso fisikoak (% 17,3 orokorki eta % 1,4 modu larrian). Ondoren eraso sozialak (% 10 orokorki eta % 1 modu larrian) eta, azkenik, eraso psikologikoak (% 7,1 orokorki eta % 1 modu larrian). Nesken kasuan, mutiletan bezalaxe, ahozko erasoak dira maiztasun handienez egiten diren erasoak (% 18,8 orokorki eta % 3,2 modu larrian), ondoren, eta mutiletan ez bezala, eraso sozialak dira bigarren ohikoenak (% 9,9 orokorki eta % 0,9 modu larrian), gero eraso fisikoak (% 7 orokorki eta % 0,9 modu larrian) eta, azkenik, eraso psikologikoak (% 3,4 orokorki eta % 0,7 modu larrian).

Behatzaileek emandako informazioa 8.7. Taulan erakusten da eta 8.11. Grafikoan islatzen da.




8.7. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren behatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak		
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Eraso fisikoa	432 (43,2)	544 (54,7)	347 (34,7)	312 (31,5)	185 (18,5)	107 (10,8)	36 (3,6)	30 (3,0)	35,84	.000
Ahozko eraso	323 (32,3)	394 (39,6)	375 (37,5)	365 (36,8)	236 (23,6)	188 (19,0)	66 (6,6)	46 (4,6)	15,95	.001
Eraso soziala	562 (56,2)	560 (56,4)	276 (27,6)	292 (29,4)	125 (12,5)	99 (10,0)	37 (3,7)	42 (4,2)	3,76	.288
Eraso psikologikoa	652 (65,2)	678 (68,3)	222 (22,2)	224 (22,6)	96 (9,6)	59 (5,9)	30 (3,0)	32 (3,2)	9,34	.025

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

8.11. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren behatzaileen ehunekoak sexuaren arabera



8.7. Taulan eta 8.11. Grafikoan, ikus dezakegun moduan, behatzaileen ehunekoetan alde adierazgarriak aurki ditzakegu aztertutako aurrez aurreko lau erasoetatik hirutan: eraso fisikoetan (mutilen % 56,8 eta nesken % 45,3), ahozko erasoetan (mutilen % 67,7 eta nesken % 60,4) eta eraso psikologikoetan (mutilen % 34,8 eta nesken % 31,7). Hiru kasu horietan jokaera gauzatzen duten mutilen ehunekoa handiagoa da. Mutil eta neskek ehuneko antzekoetan behatzen dituzte eraso sozialak.

Mutilek, nagusiki, ahozko erasoak behatu dituztela adierazten dute (% 67,7 orokorki eta % 30,2 modu larrian). Jarraian eraso fisikoak (% 56,8 orokorki eta % 22,1 modu larrian), eraso sozialak (% 43,8 orokorki eta % 16,2 modu larrian) eta, azkenik, eraso psikologikoak (% 34,8 orokorki eta % 12,6 modu larrian).

Nesken kasuan, mutilekin gertatzen zen era berean, ahozko erasoak behatu dituzte nagusiki (% 60,4 orokorki eta % 23,6 modu larrian). Ondoren, eraso fisikoak (% 45,3 orokorki eta % 13,8 modu larrian), eraso sozialak (% 43,6 orokorki eta % 14,2 modu larrian) eta, azkenik, eraso psikologikoak (% 31,17 orokorki eta % 9,1 modu larrian).

Laburbilduz, eta aurreko datuak aztertuz, aipagarria da hiru roletan adostasuna aurkitu izana. Biktima, erasotzaile eta behatzaileen arabera alde **esanguratsuak daude mutil eta nesken artean eraso fisikoetan, ahozko erasoetan eta eraso psikologikoetan, zehazki, kasu guztietan handiagoa da halako jokaerak pairatu, egin eta behatzen dituzten mutilen ehunekoa**. Gainera, hala biktimen rolean nola erasotzaileen rolean, mutil zein neskek, nagusiki, ahozko erasoak pairatu eta egiten dituztela adierazi dute. Bigarren lekuan eraso fisikoak daude mutilen kasuan eta eraso sozialak nesken kasuan. Kasu guztietan eraso psikologikoak dira gutxien pairatu, egin eta behatzen direnak. Hiru roletako bakar batean ere ez da sexuaren arabera alderik hautematen eraso sozialen maiztasunean.

### 8.1.2.3 Bullyinga: Mutil eta neskek pairatu, egin eta behatutako jokaeren kopurua


Mutil eta neskek pairatu, egin eta behatutako jokaera kopuruan sexuaren araberrako alderik dagoen ala ez identifikatze aldera, lau bullying adierazleetan (biktimizazioa, eraso, biktimizazio-erasokorra eta behaketa) eskuratutako puntuazioaren gainean aldagai bakarreko bariantza analisiak (ANOVA) burutu ziren. Eraitza hauek 8.8. Taulan ikus daitezke eta 8.12. Grafikoan islatzen dira.

8.8. Taula. Batez bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza-analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) bullying adierazleetan sexuaren arabera

	Mutilak		Neskak		$F(1, 1991)$	$p$	$d$
	$M$	$DT$	$M$	$DT$			
Biktimizazioa	1,42	2,02	0,99	1,78	25,88	.000	0,26
Erasoa	0,72	1,23	0,41	0,92	41,56	.000	0,28
Biktimizazio-erasokorra	2,15	2,86	1,39	2,30	41,55	.000	0,29
Behaketa	3,01	2,77	2,56	2,67	13,19	.000	0,16

$M$  = Batez bestekoa,  $DT$  = Desbideratze tipikoa,  $F$  =  $F$  Fisher,  $p$  = esangura,  $d$  = eraginaren tamaina

### 8.12. Grafikoa. Bullying adierazleetan pairatu, egin eta behatutako portaeren batez bestekoak sexuaren arabera



8.8. Taulan ikus daitekeenez, aldeak adierazgarriak dira lau bullying adierazleetan. Mutilek neskek baino puntuazio handiagoa eskuratzen dute guztietan. **Hots, mutilek aurrez aurreko jokaera erasokor gehiago pairatu, egin eta behatzen dituzte neskek baino.** Dena den, eraginaren tamaina txikia da lau bullying adierazleetan.

### 8.1.3 Bullying: Ikasmilaren arabeko aldeak

#### 8.1.3.1 Bullying: bosgarren eta seigarren mailako ikasleen ehunekoak, biktima-hutsak, erasotzaile-hutsak, biktima-erasotzaileak eta behatzaileak


Implikatutako rolen artean mailaren arabera desberdintasunik ba ote zen aztertzeko helburuarekin, kontingentzia eta khi-karratuaren azterketak gauzatu ziren bi aldagaien artean: ikasturtea eta partahartze-rola (biktima-huts, erasotzaile-huts, biktima-erasotzaile edo behatzaile). Emaitzak 8.9. Taulan eta 8.13. Grafikoan erakusten dira.

8.9. Taula. Bullyingaren biktima-huts, erasotzaile-huts, biktima-erasotzaile eta behatzaileen maiztasunak eta ehunekoak (ikasmila barnean) ikasmilaren arabera

	Bosgarren maila ( <i>n</i> = 1.000)		Seigarren maila ( <i>n</i> = 993)		$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%		
Biktima-hutsa ( <i>n</i> = 404)	219	21,3	185	19,2	1,45	.228
Erasotzaile-hutsa ( <i>n</i> = 121)	55	5,4	66	6,8	1,90	.168
Biktima-erasotzailea ( <i>n</i> = 476)	271	26,4	205	21,2	7,31	.007
Behatzailea ( <i>n</i> = 1.441)	738	71,9	703	72,8	0,21	.648

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

## 8.13. Grafikoa. Biktima-huts, erasotzaile-huts, biktima-erasotzaile eta behatzaileen ehunekoak kurtsoaren arabera



8.9. Taulan etan 8.13. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, emaitzak hauek izan ziren:

**Biktima-hutsak:** Bosgarren mailako ikasleen % **21,9k** ( $n = 219$ ) eta seigarren mailako ikasleen % **19,2k** ( $n = 185$ ) adierazi dute azken urtean bullying-ekintzaren bat edo gehiago jasan dituztela kideengandik. Biktima-hutsen artean (laginaren % 20,3), % 11 bosgarren mailan daude eta % 9,3, berriz, seigarrenean. Kontingentzia analisia ez da esanguratsua izan, izan ere, **bosgarren eta seigarren mailan biktima-hutsen ehunekoa antzekoa izan da** ( $\chi^2 = 1,45, p = .228$ ).

**Erasotzaile-hutsak:** Bosgarren mailako ikasleen % **5,4k** ( $n = 55$ ) eta seigarren mailako ikasleen % **6,8k** ( $n = 66$ ) bullying jokaeraren bat egin dute azken urtean, baina bat ere ez dute jasan. Erasotzaile-hutsen artean (laginaren % 6,1), % 2,8 bosgarren mailan daude eta % 3,3, berriz, seigarrenean. Kontingentzia analisia ez da esanguratsua izan, **bosgarren eta seigarren mailan erasotzaile-hutsen ehunekoa antzekoa da** ( $\chi^2 = 1,90, p = .168$ ).

**Biktima-erasotzaileak:** Bosgarren mailako ikasleen % **26,4k** ( $n = 271$ ) eta seigarren mailako ikasleen % **21,2k** ( $n = 205$ ) azken urtean zehar bullying ekintzaren bat egin eta jasan dute. Biktima guztien artean (laginaren % 23,9), % 13,6 bosgarren mailan daude eta % 10,6 berriz, seigarrenean. Kontingentzia analisia esanguratsua izan da, izan ere, **bosgarren mailan biktima-erasotzaileen ehunekoa handiagoa da** seigarrenean baino ( $\chi^2 = 7,31, p = .007$ ).

**Behatzaileak:** Bosgarren mailako ikasleen % **71,9k** ( $n = 738$ ) eta seigarren mailako ikasleen % **72,8k** ( $n = 703$ ) azken urtean kideen arteko bullying ekintzaren bat ikusi dute. Behatzaile guztien artean (laginaren % 72,3), % 37 bosgarren mailan daude eta % 35,3 berriz, seigarrenean. Kontingentzia analisia ez du emaitza esanguratsurik adierazi, hots, **bosgarren eta seigarren mailan behatzaile ehunekoa antzekoa izan da** ( $\chi^2 = 0,21, p = .648.$ )

### 8.1.3.2 Bullying: Aurrez aurreko jokoaren biktima, erasotzaile eta behatzaile izandako ikasleen ehunekoa bosgarren eta seigarren mailan


Ondoren, aurrez aurreko bullying portaera bakoitzean (fisikoak, ahozkoak, sozialak eta psikologikoak) biktima, erasotzaile eta behatzaile izan zirela adierazi zuten parte-hartzaileen maiztasuna eta ehunekoa aztertu ziren, mailaren arabera. Azterketa horretarako biktima guztiak (ez soilik biktima-hutsak) eta erasotzaile guztiak (ez soilik erasotzaile-hutsak) hartu ziren kontuan. Eskuratutako emaitzak inplikatuaren arabera sailkatu dira. Horrela, biktima (8.10 Taula, 8.14. Grafikoa), erasotzaile (8.11 Taula eta 8.15 Grafikoa) eta behatzaileentzat (8.12. Taula eta 8.16. Grafikoa) Taula zein Grafikoak banatu dira eta ondorengo lerroetan aurki daitezke, hurrenez hurren

8.10. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren biktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoa mailaren arabera

	Inoiz ez		Batuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	$p$
	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila		
Eraso mota	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Eraso fisikoa	768 (74,8)	815 (84,4)	192 (18,7)	117 (12,1)	60 (5,8)	29 (3,0)	7 (0,7)	5 (0,5)	28,89	.000
Ahozko eraso	614 (59,8)	649 (67,2)	287 (27,9)	229 (23,7)	104 (10,1)	76 (7,9)	22 (2,1)	12 (1,2)	12,93	.005
Eraso soziala	825 (80,3)	798 (82,6)	136 (13,2)	118 (12,2)	57 (5,6)	43 (4,3)	9 (0,9)	8 (0,8)	2,19	.534
Eraso psikologikoa	854 (83,2)	843 (87,3)	119 (11,6)	85 (8,8)	43 (4,2)	29 (3,0)	11 (1,1)	9 (0,9)	6,80	.079

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

## 8.14. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren biktimen ehunekoak mailaren arabera



8.10. Taulan eta 8.14 Grafikoan ikusi dezakegun moduan, alde esanguratsuak nabaritu ditzakegu bi jokoera erasokorretan: eraso fisikoa (bosgarren mailakoen % 25,2 eta seigarrenen % 15,6) eta ahozko eraso (bosgarren mailakoen % 40,2 eta seigarrenen % 32,8).

Datuei erreparatuz, esan daiteke, gehien pairatutako erasoak ahozko erasoak izan direla bai bosgarren bai seigarren mailan (% 40,2 orokorki eta % 32,8 modu larrian bosgarren mailan eta % 12,2 eta % 9,1 seigarren mailan). Bestalde, bosgarren mailan eraso fisikoak izan dira bigarren pairatuenak (% 25,5 orokorki eta % 6,2 modu larrian), eta eraso sozialak seigarren mailan (% 17,4 orokorki eta % 5,1 modu larrian). Bosgarren zein seigarren mailan eraso psikologiak izan dira gutxien eman ziren erasoak (% 17,7% eta % 12,7% ororki eta % 5,3 eta % 3,9 modu larrian, hurrenez hurren).


Erasotzaileen datuei dagokienez aztertutako ehunekoak 8.11. Taulan eta 8.15. Grafikoan biltzen dira.

### 8.11. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren biktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak mailaren arabera

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila		
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Eraso fisikoa	874 (85,1)	876 (90,7)	140 (13,6)	80 (8,3)	12 (1,2)	10 (1,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	15,70	.001
Ahozko erasoa	764 (74,4)	753 (79,0)	238 (23,2)	196 (20,3)	22 (2,1)	12 (1,2)	3 (0,3)	5 (0,5)	5,72	.126
Eraso soziala	924 (90,0)	879 (91,0)	93 (9,1)	78 (8,1)	9 (0,9)	9 (0,9)	1 (0,1)	0 (0,0)	1,57	.665
Eraso psikologikoa	965 (94,0)	923 (95,5)	51 (5,0)	37 (3,8)	9 (0,9)	4 (0,4)	2 (0,2)	2 (0,2)	3,22	.359

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

### 8.15. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren erasotzaileen ehunekoak mailaren arabera



8.11. Taulan ikusi daitekeen moduan desberdintasun esanguratsua dago burututako eraso fisikoen ehuneko kopuruan, alegia, bosgarren mailako partehartzaileen ehuneko handiago batek burutu ditu eraso fisikoak (bosgarren mailako % 14,3 eta seigarren mailako % 9,3).

Bai bosgarren bai seigarren mailan maiztasun handiagoarekin eman diren erasoak, ahozko erasoak izan dira (% 25,6 eta % 21 orokorki eta % 2,4 eta % 1,7 modu larrian, hurrenez hurren). Bigarrenik eraso fisikoak (% 14,3 eta % 9,3 orokorki eta % 1,3 eta % 1% era larrian). Hirugarrenik eraso sozialak (% 10 eta % 9 orokorki eta % 1% eta % 0,9 de modu larrian) eta azkenik eraso psikologikoak (% 6 eta % 4,5 orokorki eta % 1,1% eta % 0,6% era larrian).


Behatzaileek emandako informazioa 8.12. Taulan erakusten da eta 8.16. Grafikoan islatzen da.

8.12. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren behatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak mailaren arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	$p$
	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila		
Eraso mota	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Eraso fisikoa	462 (45,0)	51,4 (53,2)	371 (36,1)	288 (29,8)	161 (15,7)	131 (13,6)	33 (3,2)	33 (3,4)	14,43	.002
Ahozko eraso	366 (35,6)	351 (36,5)	371 (36,1)	369 (38,2)	239 (23,3)	185 (19,2)	51 (5,0)	61 (6,3)	6,23	.101
Eraso soziala	602 (58,6)	520 (53,8)	280 (27,3)	288 (29,8)	110 (10,7)	114 (11,8)	35 (3,4)	44 (4,6)	5,34	.149
Eraso psikologikoa	687 (66,9)	643 (66,6)	230 (22,4)	216 (22,4)	79 (7,7)	76 (7,9)	31 (3,0)	31 (3,2)	0,86	.993

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

8.16. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren behatzaileen ehunekoak mailaren arabera



Azken taldearen azterketa eginez gero, behatzaileena hain zuzen ere, eta 8.12. Taulan ikusten den moduan, behatzaileen ehunekoetan alde adierazgarria aurkitzen da aurrez aurreko eraso fisikoetan (bosgarren mailako % 55, eta seigarren mailak % 46,8). Honez gain aipagarria da beste hiru jokabidetan ez dela alde esanguratsurik aurkitu.

Bosgarren mailako zein seigarren mailako ikasleek, nagusiki, ahozko erasoak behatu dituztela adierazi dute (% 64,4 eta % 63,5 orokorki eta % 28,8 eta % 25,3 modu larrian, hurrenez hurren). Honen ondoren, maizen ematen direnak eraso fisikoak dira (%



55 eta 46,8% orokorki eta % 18,9 eta 16% era larrian). Ondoren eraso sozialak (% 41,6 eta % 46,2% orokorki eta % 14,1 eta % 16,2 era larrian) eta, azkenik, eraso psikologikoak % 33,1 eta % 33,4% orokorki eta % 10,7 eta % 11,1 era larrian).

Laburbilduz, eta hiru ikuspegietatik jasotako informazioa aintzat hartuta, eraso fisikoetan alde esanguratsuak daudela ondoriozta daiteke. Honez gain, bosgarren mailako ikaslegoak eraso fisikoak esanguratsuki gehiago pairatzen, egiten eta behatzen ditu. Gainera, bosgarren mailan ahozko erasoen biktimen ehuneko ere handiagoa da.

### 8.1.3.3 Bullying: Bosgarren eta seigarren mailako ikasleek pairatu, egin eta behatutako jokaera erasokorren kopurua


Mailaren arabera desberdintasunak aztertzeko helburuarekin, bi mailatan eta bullyingaren lau adierazleetan lortutako puntuazioekin (biktimizazioa, eraso, biktimizazio-erasokorra eta berbehaketa) aldagai bakarreko bariantza analisiak (ANOVA) egin ziren. Emaizak 8.13. Taulan eta 8.17. Grafikoan jaso dira.

8.13. Taula. Batez bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza-analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) bullying adierazleetan mailaren arabera

	5. maila		6. maila		F (1, 1991)	p	d
	M	DT	M	DT			
Biktimizazioa	1,37	2,03	1,04	1,79	15,04	.000	0,17
Erasoa	0,63	1,18	0,50	1,01	7,08	.008	0,19
Biktimizazio-erasokorra	2,00	2,82	1,54	2,40	15,75	.000	0,17
Behaketa	2,81	2,72	2,77	2,77	0,71	.791	0,01

M = Batez bestekoa, DT = Desbideratze tipikoa, F = F Fisher, p = esangura, d = eraginaren tamaina

8.17. Grafikoa. Bullying adierazleetan pairatu, egin eta behatutako portaeren batez bestekoak mailaren arabera



8.13. Taulan ikus daitekeenez, aldeak adierazgarriak dira hiru bullying adierazleetan, biktimizazio, eraso eta biktimizazio-erasokorrean alegia. Gainera, aipagarria da hiru kasuetan bosgarren mailakoek puntuazio handiagoa eskuratzen dutela. **Honenbestez, bosgarren mailakoek aurrez aurreko portaera erasokor gehiago pairatu eta egiten dute segiarren mailakoek baino.** Halere, eraginaren tamaina txikia da hiru bullying adierazleetan.

#### 8.1.4 Bullying: Ikastxearen sarearen arabera aldeak

##### 8.1.4.1 Bullying: Biktima-hutsen, erasotzaile-hutsen, biktima-erasotzaileen eta behatzaileen ehunekoak, ikastetxe publiko eta pribatuetan


Bullyngean ikastxearen sarearen arabera ezberdintasunak zehazte aldera, kontingentzia eta khi-karratuaren azterketak gauzatu ziren bi aldagaien artean: parte-hartze rola (biktima-hutsa, erasotzaile-hutsa, biktima-erasotzailea eta behatzailea) eta ikastetxearen sarea (publikoa edo pribatu/itunduta). Emaitzak 8.14. Taulan erakusten dira eta 8.18. Grafikoan islatzen dira.

8.14. Bullyingaren biktima-huts, erasotzaile-huts, biktima-erasotzaile eta behatzaileen maiztasunak eta ehunekoak ikastxearen sarearen arabera

	Publikoa		Pribatua		$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%		
Biktima-hutsa ( <i>n</i> = 404)	211	20,7	193	19,8	0,29	.589
Erasotzaile-hutsa ( <i>n</i> = 121)	68	6,7	53	5,4	1,38	.240
Biktima-erasotzailea ( <i>n</i> = 476)	250	24,6	226	23,2	0,56	.455
Behatzailea ( <i>n</i> = 1.441)	738	72,6	703	72,0	0,07	.789

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

8.18. Grafikoa. Biktima-huts, erasotzaile-huts, biktima-erasotzaile eta behatzaileen ehunekoak ikastetxearen sarearen arabera



## 8.14. Taulan ikus daitekeenez:

**Biktima-hutsak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **20,7k** ( $n = 211$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **19,8k**, ( $n = 193$ ) adierazi dute azken urtean ikaskideek egindako jokaera erasotzaile bat edo gehiagoren biktima-huts izan direla. Biktima-hutsen artean (laginaren % 20,3), % 10,6 ikastetxe publikoetako ikasleak dira eta % 9,7 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan. Izan ere, **ikastetxe publiko zein pribatuetako biktima-hutsen ehunekoa antzekoa da** ( $\chi^2 = 0,29$ ,  $p = .589$ )

**Erasotzaile-hutsak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **6,7k** ( $n = 211$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **5,4k** ( $n = 193$ ) azken urtean bullying-ekintza bat edo gehiago egin zituzten besteen aurka, baina ez ziren biktima izan. Erasotzaile-hutsen artean (laginaren % 6,1), % 3,4 ikastetxe publikoetako ikasleak ziren eta % 2,7 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan, hain justu, **ikastetxe publiko zein pribatuetako erasotzaile-hutsen ehunekoa antzekoa izan da** ( $\chi^2 = 1,38$ ,  $p = .240$ ).

**Biktima-erasotzaileak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **24,6k** ( $n = 250$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **23,2k** ( $n = 226$ ) jakinarazi dute azken urtean kideengandik jokaera erasokor bat edo gehiago jasan dituztela eta haien aurka jokaera erasokor bat edo gehiago egin dituztela. Biktima-erasotzaileen artean (laginaren % 23,9), % 12,6 ikastetxe publikoetako ikasleak dira eta % 11,3 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan, hots, **ikastetxe publiko zein pribatuetako biktima-erasotzaileen ehunekoa antzekoa izan da** ( $\chi^2 = 0,56$ ,  $p = .455$ ).

**Behatzaileak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **72,6k** ( $n = 738$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **72,0k** ( $n = 703$ ) azken urtean bullying-ekintza bat edo gehiago ikusi dituzte. Behatzaileen artean (laginaren % 72,3), % 37,0 ikastetxe publikoetako ikasleak dira eta % 35,3 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan, hau da, **ikastetxe publiko zein pribatuetako behatzaileen kopurua antzekoa da** ( $\chi^2 = 0,07$ ,  $p = .789$ ).

Hau guztia aztertu eta gero, esan daiteke ikastetxearen sarearen arabera parte-hartze roletan ez da alde esanguratsurik aurkitu. Beste hitz batzuetan esanda, **biktima-**

**hutsen, erasotzaile-hutsen, biktima-erasotzaileen eta behatzaileen ehunekoak antzekoak dira ikastetxe publiko zein pribatuetan.**

#### **8.1.4.2 Bullying: Aurrez aurreko jokaeren biktima, erasotzaile eta behatzaile izandako ikasleen ehunekoa ikastetxe publiko eta pribatuetan**


Ondoren, kontingentzia eta khi-karratu azterketen bidez, aurrez aurreko bullying jokabide bakoitzean (fisikoa, ahozkoa, sozialak eta psikologikoa) biktima, erasotzaile eta behatzaile izan zirela adierazi zuten parte-hartzaileen maiztasuna eta ehunekoa aztertu zen, ikastetxeren sarea aintzat hartuz. Azterketa horretarako biktima guztiak (ez soilik biktima-hutsak) eta erasotzaile guztiak (ez soilik erasotzaile-hutsak) hartu ziren kontuan. Jarrain eskuratutako emaitzak erakusten dira parte-hartzaile rol baikoitzeko. Hau da, biktima (8.15. Taula, 8.19. Grafikoa), erasotzaile (8.16. Taula eta 8.20. Grafikoa) eta behatzaileentzako (8.17. Taula eta 8.21. Grafikoa), hurrenez hurren.

8.15. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren biktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak ikastetxearen sarearen arabera

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	$p$
	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua		
	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Eraso fisikoa	777 (76,7)	806 (82,6)	174 (17,1)	135 (13,8)	58 (5,5)	31 (3,2)	8 (0,7)	4 (0,4)	14,14	.003
Ahozko erasoa	643 (63,2)	620 (63,5)	246 (24,2)	270 (27,7)	108 (10,6)	72 (7,4)	20 (2,0)	14 (1,4)	8,95	.030
Eraso soziala	807 (79,4)	816 (83,6)	135 (13,3)	119 (12,2)	64 (6,3)	35 (3,6)	11 (1,1)	6 (0,6)	10,18	.017
Eraso psikologikoa	850 (83,6)	847 (86,8)	105 (10,3)	99 (10,1)	50 (4,9)	22 (2,3)	12 (1,2)	8 (0,8)	11,03	.012

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

8.19. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren biktimen ehunekoak ikastetxearen sarearen arabera



8.15. Taulan eta 8.19. Grafikoan ikus dezakegunez, biktimen ehunekoetan alde adierazgarriak aurki daitezke aztertutako aurrez aurreko lau erasoetan: eraso fisikoetan (ikastetxe publikoen % 23,3 eta pribatuen % 17,4), ahozko erasoetan (ikastetxe publikoen ikasleen % 36,8 eta pribatuen % 36,5), eraso sozialetan (ikastetxe publikoen ikasleen % 20,6 eta pribatuen % 16,4) eta eraso psikologikoetan (ikastetxe publikoen ikasleen % 16,4 eta pribatuen % 13,2). Lau kasuetan, ikastetxe publikoetako ikaslego kopurua handiagoa izan da.

Ikastetxe publikoetan gehien pairatutako jokaerak, ahozko erasoak (% 36,8 ororki eta % 12,6 era larrian) dira, jarraian eraso fisikoak (% 23,3 ororki eta % 6,2 era larrian) eta sozialak (% 20,6 ororki eta % 7,4 era larrian) eta azkenik psikologikoak (% 16,4 eta % 6,1 era larrian). Ikastetxe pribatuetan berriz, gehien pairatutakoak ahozko erasoak dira (% 36,5 ororki eta % 8,8 era larrian), bigarrenak eraso sozialak (% 16,4 eta % 4,2) izanik eta jarraian eraso fisikoak (% 17,4 eta % 3,6) eta psikologikoak (% 13,2 eta % 3,1).


Ikastetxeen areberako erasotzaileen emaitzak jarrian eraskusten dira (8.16. Taula eta 8.20. Grafikoa).

8.16. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren erasotzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak ikastetxearen sarearen arabera

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua		
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Eraso fisikoa	880 (86,5)	870 (89,1)	120 (11,8)	100 (10,2)	17 (1,7)	5 (0,6)	0 (0,0)	1 (0,1)	8,58	.035
Ahozko erasoak	770 (75,7)	747 (76,5)	217 (21,3)	217 (22,2)	22 (2,2)	12 (1,2)	8 (0,8)	0 (0,0)	10,45	.015
Eraso soziala	914 (89,9)	889 (91,1)	92 (9,0)	79 (8,1)	10 (1,0)	8 (0,8)	1 (0,1)	0 (0,0)	1,71	.634
Eraso psikologikoa	962 (94,6)	926 (94,9)	46 (4,5)	42 (4,3)	9 (0,9)	4 (0,4)	0 (0,0)	4 (0,4)	5,95	.114

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

8.20 Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren erasotzaileen ehunekoak ikastetxearen sarearen arabera



8.16. Taulan ikus daitekeen moduan, ikastetxe publikoetako ikasleen ehuneko handiago batek eraso fisikoak (ikastetxe publikoetako % 13,5k eta pribatuetako % 10,9k) eta ahozko erasoak (ikastetxe publikoetako % 24,3k eta ikastetxe pribatuetako % 23,5k) burutu ditu. Gainera, ikastetxe publikoan, gehien burutu diren erasoak ahozko erasoak (% 24,3 orokorki eta % 3 era larrian) izan dira, gero eraso fisikoak (% 13,5 orokorki eta % 1,7era larrian) eta sozialak (% 5,4 orokorki eta % 0,9 era larrian) eta azkenik psikologikoak (% 5,4 orokorki eta % 0,9 era larian). Gehien burutu diren erasoak aztertuz gero, ikastetxe publikoetan ahozkoak (% 23,5 orokorki eta % 2,2 era larrian) izan dira errepikakorrenak, jarraiki eraso fisikoak (% 10,9 orokorki eta % 0,7 era larrian) eta

sozialak (% 8,9 orokorki eta % 0,8 era larrian) aurki daitezke eta azkenik eraso psikologikoak (% 5,1 orokorki eta % 0,8 era larrian).


Behatzaileek emandako informazioa 8.17. Taulan erakusten da eta 8.21. Grafikoan islatzen da.

8.17. Taula. Aurrez aurreko bullying portaeren behatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak ikastetxearen arabera

Eraso mota	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	$p$
	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua		
	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Eraso fisikoa	480 (47,2)	496 (50,8)	327 (32,2)	332 (34,0)	169 (16,6)	123 (12,6)	41 (4)	25 (2,6)	10,59	.014
Ahozko erasoak	362 (35,6)	355 (36,4)	353 (34,7)	387 (39,7)	233 (22,9)	191 (19,6)	69 (6,8)	43 (4,4)	10,99	.012
Eraso soziala	581 (57,1)	541 (55,4)	276 (27,1)	292 (29,9)	115 (11,3)	109 (11,2)	45 (4,4)	34 (3,5)	2,73	.436
Eraso psikologikoa	656 (64,5)	674 (69,1)	234 (23,0)	212 (21,7)	95 (9,3)	60 (6,1)	32 (3,1)	30 (3,1)	8,46	.037

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

8.21. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren behatzaileen ehunekoak ikastetxearen sarearen arabera



8.7. Taulan eta 8.11. Grafikoan ikus daitekeenez, behatzaileen ehunekoetan alde esanguratsuak aurki daitezke aztertutako aurrez aurreko lau erasoetatik hirutan: eraso fisikoetan (% 52,8 eta % 49,2), ahozko erasoetan (% 64,4 eta % 63,6) eta eraso psikologikoetan (% 35,5 eta % 30,9). Hau horrela izanda, datuek agerian utzi dute ikastetxe publikoen ikasle haundiago batek behatu dituela aztertutako erasoak. Ikastetxe publiko eta pribatuetan maiztasun handiagoz eman diren jokaerak ahozkoak izan dira

(%64,4 orokorrean eta % 29,7 era larrian, ikastetxe publikoetan; eta % 63,6 orokorki eta % 24 era larrian, ikastetxe pribatuetan). Ondoren, eraso fisikoak (% 52,8 era larrian eta % 20,6 era larrian, ikastetxe publikoetan; eta % 49,2 orokorki eta %15,2 era larrian, ikastetxe pribatuetan), eraso sozialak (% 42,9 orokorki eta % 15,7 era larrian, ikastetxe publikoetan, eta %44,6 orokorki eta % 14,7 era larrian, ikastetxe pribatuetan) eta azkenik eraso psikologikoak (% 35,5% orokorki eta %12,4 era larrian, ikastetxe publikoetan; eta % 30,9 orokorki eta % 9,2 era larrian, ikastetxe pribatuetan ) aurki daitezke.

Aurreko guztia laburbilduz, **eraso fisikoak, ahozkoak, sozialak eta psikologikoak jasan dituen, eraso fisikoak eta ahozkoak burutu dituen, eta eraso fisikoak, ahozkoak eta psikologikoak behatu dituen ikasleen ehunekoa esanguratsuki handiagoa izan da ikastetxe publikoetan.**

#### 8.1.4.3 Bullying: Ikastetxe publiko eta pribatuetako ikasleek pairatu, egin eta behatutako jokaera erasokorren kopurua

Azkenik, ikastetxe publiko eta pribatutako ikasleek pairatu, egin eta behatutako jokaera kopuruan alderik dagoen ala ez identifikatzeko, lau bullying adierazleetan (biktimizazioa, eraso, biktimizazio-erasokorra eta behaketa) eskuratutako puntuazioaren eta ikastetxeren sarearen arabera aldagai bakarreko bariantza analisiak (ANOVA) burutu dira. Emaitzak 8.18. Taulan ikus daitezke eta 8.22. Grafikoan erakusten dira.


8.18. Taula. Batez bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza-analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen *d*) bullying adierazleetan ikastetxearen sarearen arabera

	Publikoa		Pribatua		<i>F</i> (1, 1991)	<i>p</i>	<i>d</i>
	<i>M</i>	<i>DT</i>	<i>M</i>	<i>DT</i>			
Biktimizazioa	1,35	2,95	1,06	1,72	10,99	.001	0,12
Erasoa	0,61	1,17	0,52	1,02	2,89	.092	0,08
Biktimizazio-erasokorra	1,96	2,80	1,59	2,42	9,77	.002	0,14
Behaketa	2,93	2,81	2,65	2,66	4,97	.026	0,10

*M* = Batez bestekoa, *DT* = Desbideratze tipikoa, *F* = *F* Fisher, *p* = esangura, *d* = eraginaren tamaina



8.12. Grafikoa. Bullying adierazleetan pairatu, egin eta behatutako portaeren batez bestekoak ikastetxearen sarearen arabera



8.18. Taulan eta 8.22. Grafikoan ikus daitekeenez, aldeak adierazgarriak dira hiru bullying adierazleetan, eta ikastetxe publikoetako ikasleek ikastetxe publikoetako ikasleek baino puntuazio handiagoa eskuratzen dute biktimizazio, biktimizazio-erasotzaile eta behaketa adierazleetan. **Hots, ikastetxe publikoetako ikasleek aurrez aurreko jokaera erasokor gehiago pairatu, jasan eta egin eta behatzen dute ikastetxe pribatukoek baino.** Haatik, eraginaren tamaina txikia da hiru bullying adierazleetan.

## **8.2 CYBERBULLYING: PREBALENTZIA ETA ANALISI DIFERENTZIALAK**

Atal honetan aurreko atalan (8.1) egin diren analisi berdinak burutuko dira, kasu honetan cyberbullyingaren prebalentzia aztertzeko helburuakin. Aurreko atalean deskribatu zen moduan, lehenik eta behin, inplikatuak (biktimak, erasotzaileak eta behatzaileak) ehuneko eta maiztasunak finkatu ziren emaitzak batera ikusteko. Aldi berean, elkarren artean baztertzailak diren hiru kategoria (partehartzaile rol) sortu dira: “ziberbiktima-hutsak” (erasoen ziberbiktima izan dira, baina ez dute zibererasorik egin), “zibererasotzaile-hutsak” (ez dira ziberbiktima izan, baina zibererasoak egin dituzte) eta “ziberbiktima-erasotzaileak” (ziberbiktima eta zibererasotzaile izan direnak). Halaber, lehen aipatutako eraso-moduen maiztasuna aztertu da, prebalentzia orokorra (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti” erantzunei dagokie) eta prebalentzia larria (“sarritan” eta “beti” erantzunei dagokie) identifikatuz.

Bigarrenik, parte-hartzaileen analisi diferentzialak burutu dira, sexuaren, ikasmilaren eta ikastetxearen sarearen arabera. Ondorengoak identifikatu dira: 1) Rol bakoitzeko (ziberbiktima-hutsa, zibererasotzaile-hutsa, ziberbiktima-erasotzailea eta ziberbehatzailea) inplikaturako pertsonen maiztasunak eta ehunekoak; 2) ziberbiktimen, zibererasotzaileen (ziberbiktima guztiak nahiz zibererasotzaile guztiak kontuan hartuz, ez soilik ziberbiktima-hutsak eta zibererasotzaile-hutsak) eta ziberbehatzaileen maiztasuna eta ehunekoa aztertutako 15 ziberjokaera erasokor mota ezberdinetan; eta 3) ikergai den portaera bakoitzean portaera zenbat bider pairatu, egin eta behatu den.


### **8.2.1 Cyberbullying: ziberbiktima, zibererasotzaile, ziberbiktima-erasotzaile eta ziberbehatzaileen prebalentzia**

#### **8.2.1.1 Cyberbullying: Prebalentzia orokorra eta Larria**

Lehenik eta behin ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaileen, maiztasunak eta ehunekoak kalkulatu ziren azken urtean gertatutako cyberbullying

egoera batean edo gehiagotan (jokaera orokorrak). Emaitzak 8.23. Grafikoan islatzen dira eta ondoren aztertzen dira.

8.23. Grafikoa. Inplikatuak (ziberbiktimak, zibererasotzaileak eta ziberbehatzaileak) ehunekoak lagin orokorraren gainean




- Bosgarren eta seigarren mailako haurren % **42,9** ( $n = 852$ ) ziberbiktima, zibererasotzaile edo ziberbehatzaile rolean cyberbullyingeko jokaeretan **inplikatuta** egon da.
- % **16,5ek** ( $n = 329$ ), azken urtean, beste kide batzuek cyberbullyingeko jokaeraren bat edo gehiago **pairatu dituztela** adierazi dute.
- % **3,8k** ( $n = 75$ ), azken urtean, beste kide batzuei cyberbullyingeko jokaeraren bat edo gehiago **egin dizkietela** adierazi dute.
- % **37,8k** ( $n = 735$ ), azken urtean, bere kideen arteko cyberbullyingeko jokaera bat edo gehiago **behatu dituzte** edo horren berri izan dute.

Osagarri gisa, kontingentzia-azterketek erakutsi dutenez, ziberbiktima ( $n = 329$ ) izandakoen % **18,84** ( $n = 62$ ) zibererasotzaile ere izan dira, hau da, ziberbiktima-erasokorrek dira.

Horrez gain, ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak aztertu ziren. Emaitzak 8.24. Grafikoan islatzen dira, eta ondoren interpretatzen dira.


8.24. Grafikoa. Lagina ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts eta ziberbiktima-erasotzaileen artean banatuta



- **Ziberbiktima-hutsak:** laginean parte hartu duten haurren % **13,4** ( $n = 267$ ) azken urtean zehar cyberbullying-portaeren ziberbiktima izan dira, baina ez dute zibererasorik egin.
- **Zibererasotzaile-hutsak:** haurren % **0,7k** ( $n = 13$ ) euren kideen aurkako aurrez aurreko erasoak egin dituzte, baina ez dira biktima izan.
- **Ziberbiktima-erasotzaileak:** haurren % **3,1** ( $n = 62$ ) azken urtean zehar ziberbiktima izan da eta, aldi berean, bere kideen aurkako zibererasoak egin ditu.

Ondoren, analisi berdinak errepikatu ziren, ziberbiktima larrien, zibererasotzaile larrien eta ziberbehatzaile larrien prebalentzia finkatzeko. Kasu horretan “sarritan” eta “beti” maiztasunak soilik hartu ziren kontuan, hau da, azken urtean portaerak “sarritan” eta “beti” pairatu, egin eta behatu zituztenenak. 8.25. Grafikoak emaitzak erakusten ditu, eta ondoren aztertzen dira.

8.25. Grafikoa Inplikatu (ziberbiktimak, zibererasotzaileak eta ziberbehatzaileak eta ziberbiktima-erasotzaile larriak eta aldizkakoak) ehunekoak laginaren gainean




- Ikerketan parte hartu duten haurren % **9,6k** ( $n = 191$ ) ziberbiktima, zibererasotzaile edo ziberbehatzaile moduan izan da era **larrian**.
- Ikerketan parte hartu duten haurren % **3,1ek** ( $n = 61$ ) azken urtean kideengandik cyberbullyingeko jokaera **larriak pairatu dituztela** adierazi dute.
- Ikerketan parte hartu duten haurren % **0,4k** ( $n = 8$ ) adierazi dute azken urtean cyberbullyingeko jokaera erasokor **larriak egin dituztela**.

- Ikerketan parte hartu duten haurren **% 7,9k** ( $n = 157$ ) azken urtean kide batzuek beste batzuen aurka maiz egindako cyberbullyingeko jokaera erasokor **larrien berri izan dute edo behatu** egin dituzte.

Osagarri gisa, azterketek erakutsi dutenez, ziberbiktima larriak izandakoen ( $n = 61$ ) artean **% 4,9k** ( $n = 3$ ) “sarritan” edo “beti” egin zieten eraso kideei, hau da, **ziberbiktima-erasotzaile larriak dira**.

Modu horretan, eta emaitzek erakusten dutenez, lagina 8.26. Grafikoan islatzen den moduan osatzen da eta ondoren deskribatzen den.

8.26. Grafikoa. Lagina ziberbiktima-huts larri, zibererasotzaile-huts larri eta ziberbiktima-erasotzaile larrien artean banatuta



- **Ziberbiktima-huts larriak:** **% 2,9k** ( $n = 58$ ) adierazi dute azken urtean aurrez aurreko cyberbullying-portaeren ziberbiktima maiz izan direla, baina ez dira zibererasotzaile izan.
- **Zibererasotzaile-huts larriak:** **% 0,3k** ( $n = 5$ ) adierazi dute azken urtean aurrez aurreko cyberbullying-jokaerak izan dituztela maiz, baina ez dutela halako jokaerarik jasan.
- **Ziberbiktima-erasotzaile larriak:** laginean parte hartu duten haurren **% 0,2k** ( $n = 3$ ) adierazi dute azken urtean sarritan cyberbullying portaeren ziberbiktima eta zibererasotzaile izan direla.

### **8.2.1.2 Cyberbullying: Ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaileen ehuneko eta maiztasunak cyberbullyingeko erasoetan**

Cyberbullying-eraso ezberdinetan sakontzeko asmoz, azken urtean ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaile izan direla berretsi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak aztertu dira (modu orokorrean nahiz larrian). Azterketa horretarako ziberbiktima guztiak (ez soilik ziberbiktima-hutsak) eta zibererasotzaile guztiak (ez soilik zibererasotzaile-hutsak) hartu dira kontuan. Ehuneko orokorrek jokaerak “batzuetan”, “sarritan” eta “beti” pairatu, egin edo behatu dituzten parte hartzaileen ehunekoa adierazten dute, eta ehuneko larriek ebaluatutako cyberbullying-jokaeraren bat “sarritan” eta “beti” pairatu, egin edo behatu duten parte hartzaileen ehunekoa adierazten dute. Emaizak 8.19. Taulan, 8.20. Taulan eta 8.21. Taulan agertzen dira ziberbiktimentzako, zibererasotzaileentzako eta ziberbehatzaileentzako, hurrenez hurren. Gainera, emaitza hauek grafikoki erakusten dira, 8.27. Grafikoan ziberbiktima orokorrenzat eta 8.28. Grafikoan ziberbiktima larrientzat; 8.29. Grafikoan eta 8.30. Grafikoan zibererasotzaile orokorrenzat eta larrientzat, hurrenez hurren. Eta azkenik, 8.31. Grafikoan ziberbehatzaile globalak eta 8.32. Grafikoan ziberbehatzaile larriak.


8.19. Taula. Cyberbullying portaeren ziberbiktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen ehunekoak

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Betik	
	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%
1. Internetetik edo telefono mugikorretik <b>mezu iraingarriak</b> eta mingarriak bidali al dizkizute?	1.827	91,6	149	7,5	17	0,9	0	0,0
2. Internetetik edo telefono mugikorretik <b>dei iraingarriak</b> eta mingarriak egin al dizkizute (Skype-n...)?	1.941	97,4	44	2,2	8	0,4	0	0,0
3. <b>Eraso egin</b> al dizute <b>grabatu</b> eta internetera <b>igotzeko</b> ?	1.962	98,4	29	1,5	2	0,1	0	0,0
4. Internet edo mugikor bidez zure <b>argazki edo bideo pribatu edo konprometiturik zabaldu</b> al dute?	1.958	98,2	32	1,6	3	0,2	0	0,0
5. Zu ohartu gabe aldageletan, hondartzan edo komunean <b>argazkirik atera</b> al dizute eta interneten ipini dituzte edo mugikorretik <b>zabaldu</b> ?	1.979	99,3	11	0,6	3	0,2	0	0,0
6. Zu <b>beldurtzeko</b> helburuarekin eginiko <b>dei anonimorik</b> jaso duzu?	1.883	94,4	93	4,7	14	0,7	3	0,2
7. Mezu edo dei bidez <b>xantaia</b> edo mehatxu egin dizute?	1.912	95,9	68	3,4	11	0,6	2	0,1
8. Mugikorretik edo internetetik <b>jazarpen sexualik</b> pairatu duzu?	1.963	98,5	24	1,2	6	0,3	0	0,0
9. Norbaitek zure blogean <b>zu bazina bezala sinatu</b> du, gezurrak edo sekretuak kontatuz?	1.961	98,3	28	1,4	3	0,2	1	0,1
10. Zure blogera edo posta elektronikora sartu ez zaitezen <b>pasahitza lapurtu</b> dizute?	1.921	96,4	62	3,1	8	0,4	2	0,1
11. <b>Zure argazki edo bideoak aldatu</b> dituzte Internet bidez sare sozialetan edo YouTube zabaldu eta zutaz barre egiteko edo zu umilatzeko?	1.979	99,2	13	0,7	1	0,1	0	0,0
12. Sare sozialetan zu zure <b>kontaktuetatik urruntzeko</b> helburuarekin jazarpenik pairatu duzu?	1.966	98,6	24	1,2	3	0,2	0	0,0
13. Egin nahi ez zenituen gauzak egitera behartu zaituzte zure <b>gauza pertsonalak sarean ez zabaltzeko</b> ?	1.962	98,4	25	1,3	6	0,3	0	0,0
14. <b>Heriotzarekin mehatxatu</b> al zaituzte zu edo zure familiako norbait telefono mugikorretik, sare sozialetatik edo bestelako teknologien bitartez?	1.951	97,9	34	1,7	6	0,3	2	0,1
15. Internet bidez <b>zuri buruzko gezurrak zabaldu</b> al dituzte zure izen ona edo ospea zikintzeko asmoz? Zuri buruzko <b>zurrumurruak zabaldu</b> al dituzte zuri min egiteko?	1.916	96,1	62	3,1	15	0,8	0	0,0

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak



## 8.27. Grafikoa. Cyberbullying portaera orokorren ziberbiktimen ehunekoak



## 8.28. Grafikoa. Cyberbullying portaera larrien ziberbiktimen ehunekoak



.19. Taulan eta 8.28 eta 8.29 grafikoetan ikus daitekeen moduan, cyberbullyingeko jokoerak jasan dituztenen kopurua bullyingekoak jasan dituztena bezain

handia izan ez arren, argi dago ez dela gutxieteko modukoa. Jasandako jokaeren prebalentzia % 8,4 eta % 0,4 artean kokatuko litzateke, eta azpimarratzekoa da aztertutako 15 jokaerak pairatuak izan direla bosgarren eta seigarren mailan. Ziberbiktimen ikuspegitik, orokorki (batzuetan, sarritan eta beti) gehien pairatzen dituzten jokaerak honako hauek dira:

- Mugikor edo Internet bidezko mezu iraingarriak jasotzea (% 8,4).
- Beldurtzeko asmoarekin egindako dei anonimoak jasotzea (% 5,6).
- Dei edo Internet bidez xantaia edo mehatxuak jasotzea (% 4,1).
- Zurrumurruak edo gezurrak zabaltzea norberaren ospea zikintzeko (% 3,9).
- Pasahitza lapurtzea posta elektronikoan ez sartzeko (% 3,6).
- Mugikor edo Internet bidez dei iraingarriak jasotzea (% 2,6).
- Heriotza mehatxuak jasotzea mugikorrean edo sarean (% 2,1).
- Bideo/Argazki pribatuak zabaltzea (% 1,8).
- Identitatea faltsutzea eta zu izango bazina bezala sinatzea gezurrak kontatzeko (% 1,7).
- Sekretuak sarean ez hedatzeko egin nahi ez dituen gauzak eginaraziz xantaiaren biktima izatea (% 1,6).
- Grabatu eta Internetera igotzeko egindako erasoen biktima izatea (% 1,6).
- Internet edo mugikor bidez sexualki jazarria izatea (% 1,5).
- Sare sozialetan kontaktuengandik isolatzea (% 1,4).
- Aldatutako argazkiak eta bideoak hedatzea iseka egiteko eta umiliatzeko (% 0,8).
- Aldageletan, hondartzan, etab. baimenik gabe argazkiak egin eta ondoren Interneten hedatzea (% 0,8).

Ziberbiktimizazio larriari dagokionez (“sarritan” eta “beti”), % 0,9 eta % 0,1 arteko prebalentzia maila aurkitu da. Hurrengoak dira, era larrian gehien pairatu diren cyberbullying-jokaerak.

- Mugikor edo Internet bidezko mezu iraingarriak jasotzea (% 0,9).
- Beldurtzeko asmoarekin egindako dei anonimoak jasotzea (% 0,9).

- Zurrumuruak edo gezurrak zabaltzea norberaren ospea zikintzeko (% 0,8).
- Dei edo Internet bidez xantaia edo mehatxuak jasotzea (% 0,7).
- Pasahitza lapurtzea posta elektronikoan ez sartzeko (% 0,5).
- Mugikor edo Internet bidez dei iraingarriak jasotzea (% 0,4).
- Heriotza mehatxuak mugikorrean edo sarean jasotzea (% 0,4).
- Sekretuak sarean ez hedatzeko egin nahi ez dituen gauzak eginaraziz xantaiaren biktima izatea (% 0,3).
- Identitatea faltsutzea eta zu izango bazina bezala sinatzea gezurrak kontatzeko (% 0,3).
- Internet edo mugikor bidez sexualki jazarria izatea (%0,3).
- Aldageletan, hondartzan, etab. baimenik gabe argazkiak egin eta ondoren Interneten hedatzea (% 0,2).
- Bideo/Argazki pribatuak zabaltzea (% 0,2).
- Sare sozialetan kontaktuengandik isolatzea (% 0,2).
- Grabatu eta Internetera igotzeko egindako erasoen biktima izatea (% 0,1).
- Aldatutako argazkiak eta bideoak hedatzea iseka egiteko eta umiliatzeko (% 0,1).

8.20. Taulan eta 8.29 eta 8.30 grafikoetan zibererasotzaileen maiztasunak eta ehunekoak cyberbullyingeko 15 jokaeretan erakusten dira.

8.20. Taula. Cyberbullying portaeren zibererasotzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen ehunekoak


	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti	
	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%	<i>f</i>	%
1. Internetetik edo telefono mugikorretik <b>mezu iraingarriak eta mingarriak</b> bidali al dituzu?	1.946	97,7	43	2,2	2	0,1	0	0,0
2. Internetetik edo telefono mugikorretik <b>dei iraingarriak eta mingarriak</b> egin al dituzu (Skype-n...)?	1.975	99,1	14	0,7	1	0,1	1	0,1
3. Norbait <b>erasotu</b> edota probokatu al duzu jipoi bat eman, <b>grabatu eta internetera igotzeko</b> ?	1.982	99,5	8	0,4	1	0,1	0	0,0
4. Internet edo mugikor bidez norbaiten <b>argazki edo bideo pribatu edo konprometiturik zabaldu</b> al duzu?	1.986	99,7	4	0,2	1	0,1	0	0,0
5. Bestea <b>ohartu gabe</b> aldageletan, hondartzan edo komunean <b>argazkirik atera</b> al duzu eta interneten ipini edo mugikorretik zabaldu?	1.985	99,7	4	0,2	2	0,1	0	0,0
6. Norbait <b>beldurtzeko helburuarekin dei anonimorik</b> egin duzu?	1.973	99,1	18	0,9	0	0,0	0	0,0
7. Mezu edo dei bidez <b>xantaia</b> edo <b>mehatxu</b> egin duzu?	1.973	99,0	17	0,9	1	0,1	0	0,0
8. Mugikorretik edo internetetik inor <b>sexualki jazarri duzu</b> ?	1.984	99,6	4	0,2	2	0,1	1	0,1
9. Besteren baten blogean sartu eta <b>irainak, gezurrak edo sekretuak kontatu al dituzu</b> ?	1.985	99,6	5	0,3	1	0,1	0	0,0
10. Blogean edo posta elektronikoa ez sartzeko norbaiti bere blogeko edo posta elektronikoko <b>pasahitza lapurtu</b> diozu?	1.981	99,4	9	0,5	1	0,1	0	0,0
11. <b>Argazki edo bideoak aldatu</b> dituzu Internet bidez sare sozialetan edo YouTubeen zabaldu eta norbaitetaz barre egiteko edo bera umilatzeko?	1.987	99,7	2	0,1	1	0,1	1	0,1
12. Sare sozialetan norbait bere <b>kontaktuetatik urruntzeko</b> helburuarekin jazarpenik egin diozu?	1.987	99,7	3	0,2	1	0,1	0	0,0
13. Norbait egin <b>nahi ez zituen gauzak egitera behartu duzu</b> bere <b>gauza pertsonalak</b> sarean <b>ez zabaltzearen</b> truke?	1.986	99,7	4	0,2	1	0,1	0	0,0
14. <b>Inor heriotzaz mehatxatu</b> al duzu telefono mugikorretik, sare sozialetatik edo bestelako teknologien bitartez?	1.987	99,7	3	0,2	1	0,1	0	0,0
15. Internet bidez <b>beste buruzko gezurrak zabaldu</b> al dituzu haien izen ona edo ospea zikintzeko asmoz? Beste buruzko zurrumurruak zabaldu al dituzu haiei min egiteko?	1.986	99,7	4	0,2	1	0,1	0	0,0

(n = 1.991), *f* = maiztasuna, % = ehunekoa

## 8.29. Grafikoa. Cyberbullying portaera orokorren ziberasotzaileen ehunekoak



## 8.30. Grafikoa. Cyberbullying portaera larrien ziberasotzaileen ehunekoak



Zibererasotzaileen ikuspegitik jokoaren prebalentzia maila % 2,3 eta % 0,3 artean kokatzen da. Burututako jokoaren kopurua pairatutakoa baino gutxiago den arren, aipagarria da lehen hezkuntzako azken zikloko ikasleek cyberbullying-testean ikertutako jokoera guztiak gutxienez behin burutu izan dituztela azken urtean zehar. Hauek izan dira gehien burututako jokoerak:

- Mugikor/Internet bidezko mezu mingarriak edo iraingarriak igortzea (% 2,3).
- Dei/Internet bidezko xantaiak edo mehatxuak egitea (% 1).
- Mugikor/Internet bidezko dei mingarriak edo iraingarriak egitea (% 0,9).
- Beldurtzeko helburuarekin dei anonimoak egitea (% 0,9).
- Norbaiti pasahitza lapurtzea bere posta elektronikoan edo blogean sartzea eragozteko (% 0,6).
- Grabatu eta Internetera igotzeko erasoak egitea (% 0,5).
- Beste baten identitatea faltsutzea eta bera izango bazina bezala sinatzea (% 0,4).
- Jazarpen sexuala eragitea (% 0,4).
- Argazki/Bideo pribatuak hedatzea (% 0,3).
- Beste norbaiten argazkiak/bideoak lapurtu eta Internet bidez hedatzea (% 0,3).
- Argazkiak/Bideoak aldatzea hedatzeko norbaitez barre egiteko asmoarekin (% 0,3).
- Sekretuak Interneten ez hedatzeko xantaiak egitea (% 0,3).
- Internet bidez iraintzea edo zurrumurrak zabaltzea (% 0,3).
- Mugikorra/Sareak erabiliz heriotza-mehatxuak egitea (% 0,3).
- Sare sozialetan norbait bere kontaktuengandik urruntzea eta isolatzea (% 0,3).

Zibereraso larriak (“batzuetan” edo “beti” erantzun aukerak) aztertzen direnean zibererasotzaileek emandako informazioaren arabera, jokaeren prebalentzia % 0,2 eta % 0 artean kokatuko litzakete. Hauek dira zibererasotzaileen arabera jokaera ohikoenak:

- Argazki/Bideoak aldatzea hedatzeko asmoz (% 0,2).
- Mugikor/Internet bidezko dei mingarriak edo iraingarriak egitea (% 0,2).
- Jazarpen sexuala eragitea (% 0,2).
- Mugikor/Internet bidezko mezu mingarriak edo iraingarriak igortzea (% 0,1).
- Dei/Internet bidezko xantaiak edo mehatxuak egitea (% 0,1).
- Internet bidez iraintzea edo zurrumurrak zabaltzea (% 0,1).
- Mugikorra/Sareak erabiliz heriotza-mehatxuak egitea (% 0,1).
- Sekretuak Interneten ez hedatzeko xantaiak egitea (% 0,1).


Ondoren, (8.21 Taula) ziberbehatzzaileek behatutako jokaerak aurkezten dira.

8.21. Taula. Cyberbullying portaeren ziberbehatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen ehunekoak

	Inoiz Ez		Batzuetan		Sarritan		Beti	
	f	%	f	%	f	%	f	%
1. Internetetik edo telefono <b>mugikorretik mezu iraingarriak eta mingarriak</b> bidali dituztela ikusi duzu, edo esan dizute?	1.587	79,7	337	16,9	59	3,0	7	0,4
2. Internetetik edo telefono <b>mugikorretik dei iraingarriak eta mingarriak</b> egiten ikusi dituzu, edo esan dizute (Skype-n bidez...)?	1.749	87,9	213	10,7	24	1,2	4	0,2
3. Ikusi al duzu norbait <b>erasotu</b> edota probokatzea jipoi bat eman, <b>grabatu eta internetera igotzeko</b>	1.818	91,3	142	7,1	23	1,2	7	0,4
4. Internet edo mugikor bidez norbaiten <b>argazki edo bideo pribatu</b> edo konprometituri <b>zabaltzen</b> ikusi duzu?	1.818	91,3	152	7,6	17	0,9	3	0,2
5. Bestea ohartu gabe aldageletan, hondartzan edo komunean <b>argazkirik ateratzen</b> eta interneten ipintzen ikusi duzu edo <b>mugikorretik zabaldu</b> dute?	1.865	93,7	113	5,7	8	0,4	4	0,2
6. Norbait <b>beldurtzeko helburuarekin dei anonimorik</b> egiten ikusi duzu?	1.779	89,4	178	8,9	27	1,4	6	0,3
7. Norbaiti mezu edo dei bidez <b>xantaia edo mehatxu</b> egiten ikusi al diozu?	1.792	90,1	172	8,6	18	0,9	8	0,4
8. Mugikorretik edo internetetik inor <b>sexualki jazartzen</b> ikusi duzu, edo ezagutu duzu jazarpen hori sufritu duenik?	1.898	95,3	77	3,9	12	0,6	3	0,2
9. Ikusi al duzu <b>norbait besteren baten blogean sartu, haren itxuraz</b> hartuta, irainak, gezurrak edo sekretuak kontatzen? ¿	1.889	94,8	91	4,6	9	0,5	1	0,1
10. Blogean edo <b>posta elektronikoa ez sartzeko norbaiti</b> bere blogeko edo posta elektronikoko <b>pasahitza lapurtzen</b> ikusi duzu, edo ezagutzen duzu horrelakorik pasa zaionik?	1.839	92,4	127	6,4	20	1,0	4	0,2
11. Ikusi duzu norbaitez barre egiteko edo hura humilatzeko argazki edo <b>bideoak aldatzea eta Internet bidez</b> sare sozialetan edo YouTubeen <b>zabaltzea</b> ?	1.861	93,4	113	5,7	11	0,6	5	0,3
12. Sare sozialetan norbait <b>bere kontaktuetatik urruntzeko</b> helburuarekin modu honetan erasotua izaten ikusi duzu?	1.890	94,9	87	4,4	8	0,4	5	0,3
13. Ikusi duzu norbait egin <b>nahi ez zituen gauzak egitera behartzea</b> bere <b>gauza pertsonalak sarean ez zabaltzearen truke</b> ?	1.871	94,0	100	5,0	13	0,7	6	0,3
14. Badakizu inor <b>heriotzaz mehatxatu</b> duten telefono mugikorretik, sare sozialetatik edo bestelako teknologietatik? ¿	1.867	93,8	106	5,3	15	0,8	2	0,1
15. Ikusi al duzu <b>norbaiti buruzko gezurrak zabaltzen Internet bidez</b> bere izen ona edo ospea zikintzeko asmoz? Eta zurrumurrak zabaltzen norbaiti min egiteko?	1.821	91,5	141	7,1	20	1,0	8	0,4

(n=1.990), f = maiztasuna, % = ehunekoak

8.31. Grafikoa. Cyberbullying portaera orokorren ziberbehatzaileen ehunekoak



8.32. Grafikoa. Cyberbullying portaera larrien ziberasbehatzaileen ehunekoak



8.21. Taulan ikus daitekeen moduan, lagin osotik % 20,3 eta % 4,7 bitarteko batek zibererasoak ikusi dituzte bere kideen artean, lehen aipatu den moduan. **Behatzaileen** inguruko informazioa korapilatsuagoa da interpretatzeko. Izan ere, hainbat behatzailek biktima edo erasotzaile beraren berri izan baitezakete. Hori dela eta, horien ehunekoak



ezin dira alderatu biktima eta erasotzaileen ehunekoekin. Hauek dira gehien behatutako jokaerak:

- Mugikor/Internet bidezko mezu mingarriak edo iraingarriak igortzen ikustea (% 20,3).
- Mugikor/Internet bidezko dei mingarriak edo iraingarriak egiten ikustea (% 12,1).
- Beldurtzeko helburuarekin dei anonimoak egiten ikustea (% 10,6).
- Dei/Internet bidezko xantaiak edo mehatxuak egiten ikustea (% 9,9).
- Beste norbaiten argazki/bideo pribatuak hedatzen ikustea (% 8,7).
- Internet bidez iraintzea edo zurrumurrak zabaltzea (% 8,7).
- Grabatu eta Internetera igotzeko erasoak egitea (% 8,5).
- Norbaiti pasahitza lapurtzea bere posta elektronikoa edo blogean sartzea eragozteko (% 7,6).
- Argazki/Bideoak aldatzea norbaitez barre egiteko asmoarekin hedatzeko (% 6,6).
- Beste norbaiten argazkiak/bideoak lapurtu eta Internet bidez hedatzea (% 6,3).
- Mugikorra/Sareak erabiliz heriotza-mehatxuak egitea (% 6,2).
- Sekretuak Interneten ez hedatzeko xantaiak egitea (% 6).
- Beste norbaiten identitatea faltsutzea eta bera izango bazina bezala sinatzea (% 5,2).
- Sare sozialetan norbait bere kontaktuengandik urrunduz eta isolatzea (% 5,1).
- Jazarpen sexuala ikustea (% 4,7).


Jokaera hauek era larrian (“sarritan” eta “beti”) erakusten dituzten ehunekoak % 3,4 eta % 0,6 artean kokatzen dira. Ziberbehatzaileen arabera hauek dira era larrian gehien behatutako jokaerak:

- Mugikor/Internet bidezko mezu mingarriak edo iraingarriak igortzen ikustea (% 3,4).
- Beldurtzeko helburuarekin dei anonimoak egiten ikustea (% 1,7).
- Grabatu eta Internetera igotzeko erasoak egitea (% 1,6).
- Mugikor/Internet bidezko dei mingarriak edo iraingarriak egiten ikustea (% 1,4).

- Internet bidez iraintzea edo zurrumurrak zabaltzea (% 1,4).
- Dei/Internet bidezko xantaiak edo mehatxuak egiten ikustea (% 1,3).
- Norbaiti pasahitza lapurtzea bere posta elektronikoan edo blogean sartzea eragozteko (% 1,2).
- Beste norbaiten argazkiak/bideoak lapurtu eta Internet bidez hedatzea (% 1,1).
- Sekretuak Interneten ez hedatzeko xantaiak egitea (% 1).
- Mugikorra/Sareak erabiliz heriotza-mehatxuak egitea (% 0,9).
- Argazki/Bideoak aldatzea norbaitez barre egiteko asmoarekin hedatzeko (% 0,9).
- Jazarpen sexuala ikustea (% 0,8).
- Sare sozialetan norbait bere kontaktuengandik urrundu eta isolatzea (% 0,7).
- Beste norbaiten argazkiak/bideoak lapurtu eta Internet bidez hedatzea (% 0,6).
- Beste norbaiten identitatea faltsutzea eta bera izango bazina bezala sinatzea (% 0,6).

Ondoren, 8.33. Grafikoan ziberbiktinek, zibererasotzaileek eta ziberbehatzaileek oro har maizena pairatutako cyberbullying-jokaerak erakusten dira.

### 8.33. Grafikoa. Ziberbiktima, zibererasotzaile, ziberbehatzaileen ehuneko globalak portaera bakoitzean



Ziberbiktimen, zibererasotzaileen eta ziberbehatzaileen artean adostasun-maila handia dago, eta hiruren arabera hurrengo seiak dira era orokorrean (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) maizena jasandako, burututako eta behatutako jokabideak:

- Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak: (ziberbiktimen % 8,4, zibererasotzaileen % 2,3; ziberbehatzaileen % 20,3).

- Beldurtzeko dei anonimoak: (ziberbiktimen % 5,6; zibererasotzaileen % 0,9; ziberbehatzaileen % 10,6).
- Deien/Internet bidez xantaiak/mehatxuak: (ziberbiktimen % 4,1; zibererasotzaileen % 1; ziberbehatzaileen % 9,9).
- Gezurrak edo zurrumurrak zabaltzea mintzeko edo ospea zikintzeko: (ziberbiktimen % 3,9; zibererasotzaileen % 0,3; ziberbehatzaileen % 8,7).
- Blogera edo posta elektronikora sartzeko pasahitza lapurtzea (ziberbiktimen % 3,6; zibererasotzaileen % 0,6; ziberbehatzaileen % 7,6).
- Internetetik edo telefono mugikorretik dei iraingarriak eta mingarriak: ziberbiktimen % 2,6; zibererasotzaileen % 0,9; ziberbehatzaileen % 12,1.

Era larrian emandako jokaerei dagokienez, hauek dira 3 ikuspegietatik era larrian (“sarritan” eta “beti”) gehien behatutako jokaerak:

- Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak: ziberbiktimen % 0,9, zibererasotzaileen % 0,1, ziberbehatzaileen % 3,4.
- Beldurtzeko dei anonimoak: ziberbiktimen % 0,9, zibererasotzaileen % 0, ziberbehatzaileen % 0,7.
- Mintzeko edo ospea zikintzeko Interneten gezurrak edo zurrumurrak hedatzea: ziberbiktimen % 0,8, zibererasotzaileen % 0,1, ziberbehatzaileen % 1,4.
- Deien/Internet bidez xantaiak/mehatxuak: ziberbiktimen % 0,7, zibererasotzaileen % 0,1, ziberbehatzaileen % 1,3.
- Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak: ziberbiktimen % 0,4, zibererasotzaileen % 0,2, ziberbehatzaileen % 1,4.
- Blogera edo posta elektronikora sartzeko pasahitza lapurtzea: ziberbiktimen % 0,5, zibererasotzaileen % 0, ziberbehatzaileen % 1,2.

## 8.2.2 Cyberbullying: Sexuaren araberako aldeak

### 8.2.2.1 Cyberbullying: Neska eta mutilen ehunekoak, ziberbiktima-hutsak, zibererasotzaile-hutsak, ziberbiktima-erasotzaileak eta ziberbehatzaileak


Sexuaren araberako ezberdintasunak zehazte aldera, kontingentzia eta khi-karratuaren azterketak gauzatu ziren bi aldagaien artean: parte-hartze rola (ziberbiktima-hutsa, zibererasotzaile-hutsa, ziberbiktima-erasotzailea eta ziberbehatzailea modura) eta sexua. Emaitzak 8.22. Taulan erakusten dira eta 8.34 Grafikoan islatzen dira.

8.22. Taula. Cyberbullyingaren ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts, ziberbiktima-erasotzaile eta ziberbehatzaileen maiztasunak eta ehunekoak (sexuaren barnean) sexuaren arabera

	Mutilak ( $n = 1.000$ )		Neskak ( $n = 993$ )		$\chi^2$	$p$
	$f$	%	$f$	%		
Ziberbiktima-hutsa ( $n = 267$ )	139	13,9	128	12,9	4,38	.508
Zibererasotzaile-hutsa ( $n = 13$ )	9	0,9	4	0,4	1,91	.168
Ziberbiktima-erasotzailea ( $n = 62$ )	38	3,8	24	2,4	3,16	.075
Ziberbehatzailea ( $n = 753$ )	364	36,4	389	39,3	1,68	.195

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

8.34. Grafikoa. Ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts, ziberbiktima-erasotzaile eta ziberbehatzaileen ehunekoak sexuaren arabera



8.22 Taulan eta 8.34. Grafikoan ikus daitekeenez, cyberbullyingean datu hauek aurki ditzakegu:

**Ziberbiktima-hutsak:** Haurren artean, mutilen % **13,9ak** ( $n = 139$ ) eta nesken % **12,9ak** ( $n = 128$ ) adierazi du azken urtean beste kide batzuek cyberguingeko jokabide erasokor bat edo gehiago pairatu dituela. Ziberbiktima-huts guztiak kontuan hartuta (laginaren % 13,4;  $n = 267$ ), % 7 mutilak dira eta % 6,4 neskak. Kontingentzia

analisia ez da esanguratsua izan, izan ere, ziberbiktima-hutsa izan den **mutil eta nesken ehunekoa antzeko da** ( $\chi^2= 4,38, p = .508$ ).

**Zibererasotzaile-hutsak:** Mutilen % **0,9ak** ( $n = 9$ ) eta nesken % **0,4ak** ( $n = 4$ ) adierazi du azken urtean beste batzuen aurka cyberbullying ekintza bat edo gehiago egin dituela. Zibererasotzaile-huts guztiak kontuan hartuz (laginaren % 0,7), % 0,5 mutilak dira eta % 0,2 neskak. Kontingentzia analisia ez da esanguratsua izan, izan ere, zibererasotzaile-hutsa izan den **mutil eta nesken ehunekoa antzeko da** ( $\chi^2= 1,90, p = .168$ ).

**Ziberbiktima-erasotzaileak:** Mutilen % **3,8ak** ( $n = 38$ ) eta nesken % **2,4ak** ( $n = 24$ ) adierazi du azken urtean, beste kide batzuek edo/eta beste kide batzuek cyberbullyingeko jokabide erasokor bat edo gehiago jasan/egin dituela. Biktima-erasotzaile guztiak kontuan hartuz (laginaren % 3,1), % 1,9 mutilak dira eta % 1,2 neskak. Kontingentzia analisia ez da esanguratsua, izan ere, **mutilen eta nesken artean ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoa antzeko da** ( $\chi^2=3,16, p = .075$ ).

**Behatzaileak:** Mutilen % **36,4ak** ( $n = 364$ ) eta nesken % **39,3ak** ( $n = 389$ ) adierazi du azken urtean beste kide batzuen arteko jokabide erasokor bat edo gehiago behatu dituela. Behatzaile guztiak kontuan hartuz gero (laginaren % 37,8), % 18,3 mutilak dira eta % 19,5 neskak. Honebestez, esan dezakegu kontingentzia analisia ez dela esanguratsua izan, izan ere, behatzaile izan diren **mutilen eta nesken ehunekoa antzeko izan da** ( $\chi^2= 1,67, p = .195$ ).

#### **8.2.2.2 Cyberbullying: Ziber-jokaeren ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaile izandako ikasleen ehunekoa mutil eta nesketan**

Ondoren, kontingentzia eta khi-karratu azterketen bidez, cyberbullying jokabide bakoitzeko ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak aztertu dira, sexua aintzat hartuz. Azterketa horretarako ziberbiktima guztiak (ez soilik ziberbiktima-hutsak) eta zibererasotzaile guztiak (ez soilik zibererasotzaile-hutsak) hartu dira kontuan. Datozen Taula eta grafikoetan, eskuratutako emaitzak aztertu eta ziberbiktima (8.23 Taula, 8.35. Grafikoa),

zibererasotzaile (8.24. Taula eta 8.35. Grafikoa) eta ziberbehatzaile (8.25. Taula eta 8.37. Grafikoa) izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera erakusten dira.


8.23 Taula. Cyberbullying jokaeran ziberbiktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak		
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak	911 (91,1)	916 (92,2)	78 (7,8)	71 (7,2)	11 (1,1)	6 (0,6)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,79	.409
Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak	970 (97,0)	971 (97,8)	23 (2,3)	21 (2,1)	7 (0,7)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	4,57	.102
Erasoa egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko	977 (97,7)	985 (99,2)	21 (2,1)	8 (0,8)	2 (0,2)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	7,84	.020
Argazki/bideo pribatuak zabaltzea	981 (98,1)	977 (98,4)	16 (1,6)	16 (1,6)	3 (0,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,98	.225
Argazkiak/bideoak lapurtzea Interneten zabaltzeko	990 (99,0)	989 (99,6)	7 (0,7)	4 (0,4)	3 (0,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,79	.150
Beldurtzeko dei anonimoak	932 (93,2)	951 (95,8)	59 (5,9)	34 (3,4)	8 (0,8)	6 (0,6)	1 (0,1)	2 (0,2)	7,51	.057
Deien/Internet bidez mehatxu	956 (95,6)	956 (95,6)	38 (3,8)	30 (3,0)	4 (0,4)	7 (0,7)	2 (0,2)	0 (0,0)	3,73	.292
Sexu-jazarpena	982 (98,2)	981 (98,8)	16 (1,6)	8 (0,8)	2 (0,2)	4 (0,4)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,31	.191
Identitatea faltsutzea	978 (97,8)	983 (99,0)	19 (1,9)	9 (0,9)	2 (0,2)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	4,89	.180
Pasahitzak lapurtzea	958 (95,8)	963 (97,0)	37 (3,7)	25 (2,5)	3 (0,3)	5 (0,5)	2 (0,2)	0 (0,0)	4,81	.186
Argazkiak/bideoak aldatzea zabaltzeko	989 (98,9)	990 (99,7)	10 (1,0)	3 (0,3)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	4,75	.093
Sare sozialetan isolatzea	985 (98,5)	981 (98,8)	13 (1,3)	11 (1,1)	2 (0,2)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0,48	.785
Sekretuak ez zabaltzeko xantaia	985 (98,5)	977 (98,4)	11 (1,1)	14 (1,4)	4 (0,4)	2 (0,2)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,04	.596
Heriotza-mehatxuak mugikor/Internet bidez	977 (97,7)	974 (98,1)	19 (1,9)	15 (1,5)	4 (0,4)	2 (0,2)	0 (0,0)	2 (0,2)	3,12	.374
Difamazioa edota zurrumurruak Internet bidez	956 (95,6)	960 (96,7)	33 (3,3)	29 (2,9)	11 (1,1)	4 (0,4)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,51	.173

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura



## 8.35. Grafikoa. Cyberbullying portaeren ziberbiktimen ehunekoak sexuaren arabera



8.23. Taulan ikus dezakegunez, ziberbiktimen ehunekoetan alde esanguratsuak topa ditzakegu cyberbullying jokaera bakar batean: eraso biktima izatea grabatzeko eta Internetera igotzeko (mutilen % 2,3 eta nesken % 0,8).

Hala mutilentzat nola neskeentzat era orokorrean (“batzuetan”, “sarrietan” eta “beti”) gehien jasandako cyberbullying jokabideak hauek izan dira: mezu iraingarriak jasotzea (mutilen % 8,9 eta nesken % 7,8), beldurtzeko asmoarekin dei anonimoak jasotzea (mutilen % 6,8 eta nesken % 4,2), zurrumurren eta difamazioaren biktima izatea

Internet bidez (mutilen % 4,4 eta nesken % 3,3), eta kontraseña lapurketa (mutilen % 4,2 eta nesken % 3).

Horrez gain, mutilen artean era larrian gehien jasandako erasoak honako hauek izan ziren: mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (% 1,1), difamazioa edota zurrumurruek Internet bidez (% 1,1), beldurtzeko dei anonimoak (% 0,9), mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak (% 0,9) eta Deien/Internet bidez mehatxu (% 0,6). Aitzik, nesken kasuan honako hauek izan dira era larrian gehien pairatutako jokabideak: beldurtzeko dei anonimoak (% 0,8), deien/Internet bidez mehatxu (% 0,7), mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (% 0,6), pasahitzak lapurtzea (% 0,6) eta difamazioa edota zurrumurruek Internet bidez (% 0,4).


Mutil eta neska zibererasotzaileek adierazitako datuak 8.24. Taulan erakusten dira eta 8.36. Grafikoan islatzen dira.

8.24. Taula. Cyberbullying portaeren zibererasotzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	$p$
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak		
	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak	972 (97,3)	974 (98,2)	25 (2,5)	18 (1,8)	2 (0,2)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,18	.210
Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak	989 (99,0)	986 (99,4)	9 (0,9)	5 (0,5)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1 (0,1)	3,12	.373
Erasoa egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko	992 (99,3)	990 (99,8)	6 (0,6)	2 (0,2)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,98	.226
Argazki/bideo pribatuak zabaltzea	996 (99,7)	990 (99,8)	3 (0,3)	1 (0,1)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,99	.369
Argazkiak/bideoak lapurtzea Interneten zabaltzeko	994 (99,5)	991 (99,9)	4 (0,4)	0 (0,0)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,98	.137
Beldurtzeko dei anonimoak	987 (98,8)	986 (99,4)	12 (1,2)	6 (0,6)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,98	.160
Deien/Internet bidez mehatxu	987 (98,8)	986 (99,4)	12 (1,2)	5 (0,5)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,86	.145
Sexu-jazarpena	994 (99,5)	990 (99,8)	4 (0,4)	0 (0,0)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	1 (0,1)	4,98	.173
Identitatea faltsutzea	994 (99,5)	991 (99,9)	4 (0,4)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,78	.249
Pasahitzak lapurtzea	994 (99,5)	987 (99,5)	5 (0,5)	4 (0,4)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,11	.574
Argazkiak/bideoak aldatzea zabaltzeko	997 (99,8)	990 (99,8)	1 (0,1)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1 (0,1)	2,00	.572
Sare sozialetan isolatzea	996 (99,7)	991 (99,9)	3 (0,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	1 (0,1)	3,98	.136
Sekretuak ez zabaltzeko xantaia	995 (99,6)	991 (99,9)	4 (0,4)	0 (0,0)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	4,98	.083
Heriotza-mehatxuak mugikor/Internet bidez	996 (99,7)	991 (99,9)	2 (0,2)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,32	.517
Difamazioa edota zurrumurruak Internet bidez	996 (99,7)	990 (99,8)	2 (0,2)	2 (0,2)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	0,99	.608

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

### 8.36. Grafikoa. Cyberbullying portaeren zibererasotzaileen ehunekoak sexuaren arabera



8.24. Taulan ikus daiteken modura burututako cyberbullyingeko jokaeratan nesken eta mutilen artean ez dira alde esanguratsuak aurkitu.

Burututako jokaeren maiztasun orokorrari dagokionez, mutilek eta neskek aho batez hauek izan direla gehien burututako zibererasoak adierazi dute: mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (mutilen % 2,7 eta nesken % 1,8), beldurtzeko dei anonimoak (mutilen % 1,2 eta nesken % 0,6), deien/Internet bidez xantaia/mehatxua (mutilen % 1,2

eta nesken % 0,6) eta mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak (mutilen % 1 eta nesken % 0,6).

Era larrian (“sarritan” eta “beti”) burututako jokaerei dagokienez mutilen kasuan mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (% 0,2) izan da gehien burutu den jokabidea, neskek berriz batez ere sexu-jazarpena (% 0,2) burutu zutela adiezi dute


Azkenik, 8.25. Taulan, ziberbehatzailleek ikusitako cyberbullying jokaeren berri ematen da.

8.25. Taula. Cyberbullying portaeren ziberbehatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak sexuaren arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarrietan		Beti		$\chi^2$	$p$
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak		
	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak	806 (80,7)	781 (78,8)	160 (16,0)	177 (17,9)	30 (3,0)	29 (2,9)	3 (0,3)	4 (0,4)	1,37	.710
Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak	869 (87,0)	880 (88,8)	111 (11,1)	102 (10,3)	17 (1,7)	7 (0,7)	2 (0,2)	2 (0,2)	4,58	.205
Erasoa egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko	910 (91,1)	908 (91,6)	69 (6,9)	73 (7,4)	15 (1,5)	8 (0,8)	5 (0,5)	2 (0,2)	3,50	.321
Argazki/bideo pribatuak zabaltzea	917 (91,8)	901 (90,9)	69 (6,9)	83 (8,3)	12 (1,2)	5 (0,5)	1 (0,1)	2 (0,2)	4,61	.202
Argazkiak/bideoak lapurtzea Interneten zabaltzeko	940 (94,1)	925 (93,3)	50 (5,0)	63 (6,4)	7 (0,7)	1 (0,1)	2 (0,2)	2 (0,2)	6,08	.108
Beldurtzeko dei anonimoak	887 (88,8)	892 (90,0)	85 (8,5)	93 (9,4)	23 (2,3)	4 (0,4)	4 (0,4)	2 (0,2)	14,38	.002
Deien/Internet bidez mehatxu	902 (90,3)	890 (89,8)	79 (7,9)	93 (9,4)	13 (1,3)	5 (0,5)	5 (0,5)	3 (0,3)	5,24	.155
Sexu-jazarpena	959 (96,0)	939 (94,8)	29 (2,9)	48 (4,8)	9 (0,9)	3 (0,3)	2 (0,2)	1 (0,1)	8,20	.042
Identitatea faltsutzea	942 (94,3)	947 (95,6)	48 (4,8)	43 (4,3)	8 (0,8)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	6,70	.082
Pasahitzak lapurtzea	919 (92,0)	920 (92,8)	69 (6,9)	58 (5,9)	9 (0,9)	11 (1,1)	2 (0,2)	2 (0,2)	1,21	.772
Argazkiak/bideoak aldatzea zabaltzeko	927 (92,8)	934 (94,2)	60 (6,0)	53 (5,3)	9 (0,9)	2 (0,2)	3 (0,3)	2 (0,2)	5,08	.166
Sare sozialetan isolatzea	951 (95,2)	939 (94,8)	41 (4,1)	46 (4,6)	5 (0,5)	3 (0,3)	2 (0,2)	3 (0,3)	1,03	.794
Sekretuak ez zabaltzeko xantaia	936 (93,7)	935 (94,3)	54 (5,4)	46 (4,6)	6 (0,6)	7 (0,7)	3 (0,3)	3 (0,3)	0,68	.877
Heriotza-mehatxuak mugikor/Internet bidez	935 (93,6)	932 (94,0)	53 (5,3)	53 (5,3)	11 (1,1)	4 (0,4)	0 (0,0)	2 (0,2)	5,24	.155
Difamazioa edota zurrumurruak Internet bidez	905 (90,6)	916 (92,4)	75 (7,5)	66 (6,7)	14 (1,4)	6 (0,6)	5 (0,5)	3 (0,3)	4,31	.230

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

## 8.37. Grafikoa. Cyberbullying portaeren ziberbehatzaileen ehunekoak sexuaren arabera



8.25. Taula erakutsi den moduan, hurrengo jokaeretan topa ditzakegu alde esanguratsuak mutilen eta nesken artean: beldurtzeko dei anonimoak eta sexu-jazarpena. Lehenengoan mutilen ehuneko esanguratsuki handiago behatu zuen jokaera hau (mutilen % 11,2 eta neske % 10), bigarrena, nesken ehuneko esanguratsuki handiago bat ikusi du sexu-jazarpena kideen artean (mutilen % 4 eta nesken % 5,2).

Hala mutilentzat nola neskeentzat era orokorrean (“batzuetan”, “sarrietan” eta “beti”) gehien jasandoko cyberbullying jokabideak hauek izan dira: Internetetik edo telefono mugikorretik mezu iraingarriak eta mingarriak bidali dituztela ikusi duzu (mutilen % 19,3 eta nesken % 21,2), Internetetik edo telefono mugikorretik dei iraingarriak eta mingarriak egiten ikusi dituzu? (mutilen % 13 eta nesken % 11,2). Mutilek beldurtzeko dei anonimoak (% 11,2) hirugarren gehien ikusitako jokaera dela diote, neskek berriz deien/Internet bidez xantaia/mehatxu (% 10,2) dela adierazi dute. Laugarren gehien emandako jokaera bai mutilen bai nesken arabera deien/Internet bidez xantaia/mehatxu (mutilen % 9,7 eta nesken % 10) da. Bosgarren gehien emandako jokaera era orokorrean difamazioa edota zurrumurruak Internet bidez zabaltzea (% 9,4) da mutilen arabera eta argazki/bideo pribatuak zabaltzea nesken arabera (% 9,1).

Mutilen artean era larrian gehien behatutako jokaerak mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (% 3,3), beldurtzeko dei anonimoak (% 2,7), norbaiti eraso egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko (% 2), mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak eta difamazioa edota zurrumurruak Internet bidez (% 1,9) dira. Nesken kasuan mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (% 3,3), pasahitzak lapurtzea (% 1,3), norbaiti eraso egitea (% 1), sekretuak ez zabaltzeko xantaia (% 1) eta mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak (% 0,9) izan dira.

### **8.2.2.3 Cyberbullying: Mutilek eta neskek pairatu, egin eta behatutako ziberjokaeren kopurua**

Mutil eta neskek pairatu, egin eta behatutako ziberjokaera kopuruan sexuaren araberako alderik dagoen ala ez identifikatze aldera, lau cyberbullying adierazleetan (ziberbiktimizazioa, zibererasoa, ziberbiktimizazio-erasokorra eta ziberbehaketa) eskuratutako puntuazioaren gainean aldagai bakarreko bariantza analisiak (ANOVA) burutu ziren. Emaidza hauek 8.26. Taulan ikus daitezke eta 8.38. Grafikoan islatzen dira.




8.26. Taula. Batez bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza-analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) cyberbullying adierazleetan sexuaren arabera

	Mutilak		Neskak		F (1, 1991)	$p$	$d$
	M	DT	M	DT			
Ziberbiktimizazioa	0,55	1,82	0,39	1,40	4,85	.028	0,09
Zibererasoa	0,12	0,89	0,07	0,91	1,19	.274	0,05
Ziberbiktimizazio-erasokorra	0,67	2,37	0,46	1,91	4,48	.034	0,09
Ziberbehaketa	1,55	3,60	1,39	2,82	1,17	.278	0,04

$M$  = Batez bestekoa,  $DT$  = Desbideratze tipikoa,  $F$  =  $F$  Fisher,  $p$  = esangura,  $d$  = eraginaren tamaina

8.38. Grafikoa. Bullying adierazleetan pairatu, egin eta behatutako portaeren batez bestekoak sexuaren arabera



8.26. Taulan ikus daitekeen moduan, alde esanguratsuak daude, ziberbiktimizazio eta biktimizazio-eraskorraren adierazleetan. Izan ere, bi kasuetan mutilek neskek baino puntuazio handiagoa eskuratzen dute. Hala ere, eraginaren tamaina txikia da bietan. Bestalde, ez zen alde esanguratsurik topatu zibererasoan eta ziberbehaketan mutilen eta nesken artean. Laburbilduz **mutilek cyberbullying jokaera erasokor gehiago pairatu eta pairatu/egin dute neskek baino.**

## 8.2.3 Cyberbullying: Ikasmilaren arabera aldeak

### 8.2.3.1 Cyberbullying: bosgarren eta seigarren mailako ikasleen ehunekoak, ziberbiktima-hutsak, zibererasotzaile-hutsak, ziberbiktima-erasotzaileak eta ziberbehatzaileak


Implikatutako rolen artean ikastaroaren arabera desberdintasunik ba ote zen identifikatzeko, kontingenzien analisi bat egin zen bi aldagaien artean: ikasturtea eta partaidetza-rola (ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts, ziberbiktima-erasotzaile edota ziberbehatzaile). Emaitzak 8.27. Taulan daude jasota, eta 8.39 Grafikoan irudikatzen dira.

8.27. Taula. Cyberbullyingaren ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts, ziberbiktima-erasotzaile eta ziberbehatzaileen maiztasunak eta ehunekoak (ikasmaila barnean) ikasmilaren arabera

	Bosgarren maila (n = 1.000)		Seigarren maila (n = 993)		$\chi^2$	p
	f	%	f	%		
Ziberbiktima-hutsa (n = 267)	108	10,5	159	16,5	15,57	.000
Zibererasotzaile-hutsa (n = 13)	2	0,2	11	1,1	6,83	.009
Ziberbiktima-erasotzailea (n = 62)	22	2,1	40	4,1	6,55	.010
Ziberbehatzailea (n = 753)	314	30,7	439	45,4	46,17	.000

f = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$ = khi karratua, p = esangura

8.39. Grafikoa. Ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts, ziberbiktima-erasotzaile eta ziberbehatzaileen ehunekoak kurtsoaren arabera



8.27. Taulan ikus daitekeen bezala, cyberbullyingaren emaitzak ikasturtearen arabera esanguratsuak dira adierazle guztietan, eta honako emaitzak eskuratu dira:

**Ziberbiktima-hutsak:** Bosgarren ikasturteko ikasleen % **10,5ek** ( $n = 108$ ) eta seigarren ikasturteko ikasleen % **16,5ek** ( $n = 159$ ) adierazi dute azken urtean jasan dutela cyberbullying-ekintzaren bat edo gehiago ikaskideen aldetik. Ziberbiktima-hutsen artean (laginaren % 13,4), % 5,4 bosgarren mailan daude eta % 8, berriz, seigarrenean. Kontingentzia analisia esanguratsua izan da, eta seigarren ikasturtean **ziberbiktima-hutsen ehunekoa handiagoa da** bosgarrenean baino ( $\chi^2 = 15,17, p < .001$ ).

**Zibererasotzaile-hutsak:** Bosgarren ikasturteko ikasleen % **0,2k** ( $n = 2$ ) eta seigarren ikasturteko ikasleen % **1,1ek** ( $n = 11$ ) egin dute cyberbullying-ekintzaren bat azken ikasturtean, baina jasan bat ere ez. Zibererasotzaile-hutsen artean (laginaren % 0,7), % 0,1 bosgarren mailan daude eta % 0,6, berriz, seigarrenean. Kontingentzia analisia esanguratsua izan da, eta **seigarren ikasturtean zibererasotzaile-hutsen ehunekoa handiagoa da** bosgarrenean baino ( $\chi^2 = 6,83, p = .009$ ).

**Ziberbiktima-erasotzaileak:** Bosgarren ikasturteko ikasleen % **2,1ek** ( $n = 21$ ) eta seigarren ikasturteko ikasleen % **4,1ek** ( $n = 40$ ) egin eta jasan dute cyberbullying-ekintzaren bat azken ikasturtean. Ziberbiktima guztien artean (laginaren % 3,1), % 1,1 bosgarren mailan daude eta % 2, berriz, seigarrenean. Kontingentziaren analisia esanguratsua izan da, eta **seigarren ikasturtean ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoa handiagoa da** bosgarrenean baino ( $\chi^2 = 6,55, p = .010$ ).

**Ziberbehatzaileak:** Bosgarren ikasturteko ikasleen % **30,7k** ( $n = 314$ ) eta seigarren ikasturteko ikasleen % **45,4k** ( $n = 439$ ) ikusi dute cyberbullying-ekintzaren bat ikaskideen artean azken ikasturtean. Ziberbehatzaile guztien artean (laginaren % 37,8), % 15,8 bosgarren mailan daude eta % 22,1, berriz, seigarrenean. Kontingentzia analisiaren emaitza esanguratsuak izan da, eta **Lehen Hezkuntzako seigarren mailan ziberbehatzaile gehiago ageri da** bosgarrenean baino ( $\chi^2 = 46,17, p < .001$ ).

### **8.2.3.2 Cyberbullying: ziber-jokaeren ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaile izandako ikasleen ehunekoa bosgarren eta seigarren mailan**


Mailaren araberako desberdintasunen azterketa egiten jarraitzeko, kontingentzia-azterketak egin ziren rolaren (ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaile) eta ikasturtearen artean; horretarako, ziberbiktima guztiak hartu ziren kontuan (ez ziberbiktima-hutsak bakarrik), baita zibererasotzaile guztiak ere (ez zibererasotzaile-hutsak bakarrik). Ziberbiktimen emaitzak 8.28. Taulan eta 8.40. Grafikoan aurkezten dira; zibererasotzaileenak 8.21. Taulan eta 8.41. Grafikoan, eta ziberbehatzaileenak, berriz, 8.30. Taulan eta 8.42. Grafikoan.

8.28. Taula. Cyberbullying portaeren ziberbiktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak mailaren arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila		
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak	967 (94,2)	860 (89,0)	53 (5,2)	96 (9,9)	7 (0,7)	10 (1,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	17,35	.000
Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak	1.007 (98,1)	934 (96,7)	17 (1,7)	27 (2,8)	3 (0,3)	5 (0,5)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,66	.161
Erasoa egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko	1.003 (98,6)	949 (98,2)	13 (1,3)	16 (1,7)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0,53	.767
Argazki/bideo pribatuak zabaltzea	1.013 (98,6)	945 (97,8)	12 (1,2)	20 (2,1)	2 (0,2)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,83	.243
Argazkiak/bideoak lapurtzea Interneten zabaltzeko	1.020 (99,3)	959 (99,3)	5 (0,5)	6 (0,6)	2 (0,2)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0,44	.803
Beldurtzeko dei anonimoak	983 (95,7)	900 (93,2)	38 (3,7)	55 (5,7)	6 (0,6)	8 (0,8)	0 (0,0)	3 (0,3)	8,19	.042
Deien/Internet bidez xantaia/mehatxu	997 (97,1)	915 (94,7)	25 (2,4)	43 (4,5)	3 (0,3)	8 (0,8)	2 (0,2)	0 (0,0)	10,70	.013
Sexu-jazarpena	1.010 (98,3)	953 (98,7)	15 (1,5)	9 (0,9)	2 (0,2)	4 (0,4)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,96	.376
Identitatea faltsutzea	1.015 (98,8)	946 (97,9)	11 (1,1)	17 (1,8)	1 (0,1)	2 (0,2)	0 (0,0)	1 (0,1)	3,18	.364
Pasahitzak lapurtzea	994 (96,8)	927 (96,0)	27 (2,6)	35 (3,6)	5 (0,5)	3 (0,3)	1 (0,1)	1 (0,1)	2,00	.572
Argazkiak/bideoak aldatzea zabaltzeko	1.019 (99,2)	960 (99,4)	7 (0,7)	6 (0,6)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	0,97	.616
Sare sozialetan isolatzea	1.014 (98,7)	952 (98,6)	10 (1,0)	14 (1,4)	3 (0,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,76	.153
Sekretuak ez zabaltzeko xantaia	1.014 (98,7)	948 (98,1)	9 (0,9)	16 (1,7)	4 (0,4)	2 (0,2)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,98	.225
Heriotza-mehatxuak mugikor/Internet bidez	1.009 (98,2)	942 (97,5)	17 (1,7)	17 (1,8)	1 (0,1)	5 (0,5)	0 (0,0)	2 (0,2)	5,10	.164
Difamazioa edota zurrumurruak Internet bidez	998 (97,2)	918 (95,0)	22 (2,1)	40 (4,1)	7 (0,7)	8 (0,8)	0 (0,0)	0 (0,0)	6,77	.034

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

#### 8.40. Grafikoa. Cyberbullying portaeren ziberbiktimen ehunekoak mailaren arabera



Taulan ikus dezakegun moduan, alde esanguratsuak ikus daiteke honako jokaera hauetan: mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (bosgarren mailakoen % 5,4 eta seigarrenen % 11), beldurtzeko deiak (bosgarren mailakoen % 4,3 eta seigarrenen % 6,8), mugikor edo internet bidezko xantaia/mehatxuak (bosgarren mailakoen % 2,9 eta seigarrenen % 5,3) eta sare sozialetan difamazioak (bosgarren mailakoen % 2,8 eta

seigarrenekoen % 5). Modu esanguratsuan, jarrera horiek guztiak jasan zituztenen ehuneko handiagoak ageri dira seigarren ikasturteko ikasleen artean.

Mailaka aztertuta, honako hauek izan ziren bosgarren urtean gehien izandako jarrerak: mugikor bidez mezu iraingarriak jasotzea (% 5,4), izutzeko dei anonimoak jasotzea (% 4,3) eta pasahitzak lapurtzea (% 3,2). Seigarren ikasturteko ikasleen artean, honako hauek izan ziren prebalentzia handieneko jarrerak: mugikorraren eta internet bidez mezu iraingarriak jasotzea (% 11), izutzeko dei anonimoak jasotzea (% 6,8) eta deien edo Internet bidez xantaia/mehatxuak jasotzea (% 5,3). Aztertutako jarrera gehienek ehuneko handiagoa izan zuten seigarren ikasturtean, sexu-jazarpena eta argazkiak zein bideoak aldatzeak izan ezik; azken horiek neurri handiagoan jasan zituzten bosgarren ikasturteko ikasleek.

Era larrian bosgarren mailako ikasleek gehien izandako jarrerak honako hauek izan ziren: mugikor/internet bidez mezu iraingarriak jasotzea (% 0,7), Internet bidez difamazioak edo zurrumurruek zabaltzea (% 0,7), izutzeko dei anonimoak jasotzea (% 0,6), pasahitzak lapurtzea (% 0,6), deien edo Internet bidez xantaia/mehatxuak jasotzea (% 0,5). Seigarren ikasturtean, ohikoenak honako hauek izan ziren: izutzeko dei anonimoak jasotzea (% 1,1), mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak (% 1), deien/Internet bidez xantaia/mehatxuak jasotzea (% 0,8), Internet bidez difamazioak jasotzea (% 0,8), eta heriotza-mehatxuak jasotzea mugikorretik/sare sozialen bidez (% 0,7).


8.29. Taula. Cyberbullying portaeren zibererasotzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak mailaren arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	<i>p</i>
	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila		
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak	1.010 (98,5)	936 (96,9)	15 (1,5)	28 (2,9)	0 (0,0)	2 (0,2)	0 (0,0)	0 (0,0)	7,00	.030
Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak	1.019 (99,4)	956 (99,0)	5 (0,5)	9 (0,9)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	1 (0,1)	3,41	.333
Erasoa egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko	1.021 (99,6)	961 (99,5)	3 (0,3)	5 (0,5)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,57	.456
Argazki/bideo pribatuak zabaltzea	1.023 (99,8)	963 (99,7)	2 (0,2)	2 (0,2)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,06	.587
Argazkiak/bideoak lapurtzea Interneten zabaltzeko	1.021 (99,6)	964 (99,8)	3 (0,3)	1 (0,1)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0,89	.641
Beldurtzeko dei anonimoak	1.020 (99,5)	953 (98,7)	5 (0,5)	13 (1,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	4,09	.043
Deien/Internet bidez xantaia/mehatxu	1.019 (99,4)	954 (98,8)	6 (0,6)	11 (1,1)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,87	.239
Sexu-jazarpena	1.022 (99,7)	962 (99,6)	2 (0,2)	2 (0,2)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	1 (0,1)	1,07	.785
Identitatea faltsutzea	1.022 (99,7)	963 (99,7)	2 (0,2)	3 (0,3)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,26	.547
Pasahitzak lapurtzea	1.020 (99,5)	961 (99,5)	5 (0,5)	4 (0,4)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,12	.571
Argazkiak/bideoak aldatzea zabaltzeko	1.024 (99,9)	963 (99,7)	0 (0,0)	2 (0,2)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1 (0,1)	4,13	.248
Sare sozialetan isolatzea	1.024 (99,9)	963 (99,7)	1 (0,1)	2 (0,2)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	1 (0,1)	1,46	.482
Sekretuak ez zabaltzeko xantaia	1.023 (99,8)	963 (99,7)	2 (0,2)	2 (0,2)	0 (0,0)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,07	.587
Heriotza-mehatxuak mugikor/Internet bidez	1.024 (99,9)	963 (99,7)	0 (0,0)	3 (0,3)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	4,13	.127
Difamazioa edota zurrumurruak Internet bidez	1.023 (99,8)	963 (99,7)	1 (0,1)	3 (0,3)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,07	.356

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura



## 8.41. Grafikoa. Cyberbullying portaeren zibererasotzaileen ehunekoak mailaren arabera



Egindako jarrereri dagokienez, jarreretan alde esanguratsuak antzeman daitezke: mezuak mugikorraren iraingarriak bidaltzea (bosgarren mailakoen % 1,5 eta seigarrenen % 3,1) eta beldurtzeko dei anonimoak egitea (bosgarren mailakoen % 0,5 eta seigarrenen % 1,3). Bi kasuetan, jokaera horiek Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek egiten dituzte neurri handiagoan.

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek oro har maizago egindako ekintzen artean honako hauek ageri dira: mugikorraren edo Internet bidez mezu iraingarriak bidaltzea (% 1,5), deien edo Internet bidez xantaia/mehatxuak egitea (% 0,6) eta mugikorraren edo Internet bidez dei iraingarriak egitea (% 0,6). Seigarren ikasturteko ikasleen artean, honako hauek izan ziren maiztasun handieneko jarrerak: mugikorraren eta Internet bidez mezu iraingarriak bidaltzea (% 3,1), izutzeko dei anonimoak egitea (% 1,3) eta deien edo Internet bidez xantaia/mehatxuak egitea (% 1,2). Aztertutako jarrera ia guztiak neurri handiagoan egin dituzte seigarren mailako ikasleek, honako hauek izan ezik: argazkiak ondoren zabaltzeko lapurtzea eta pasahitzak lapurtzea. Azken horiek bosgarren mailako ikasleek ehuneko handiagoan egin zituzten.


Era larrian, bosgarren ikasturtean honako zortzi jarrera hauek izan zituzten lagineko % 0,1ek: mugikor edota Internet bidez dei iraingarriak egitea, grabatzeko eta Interneten zabaltzeko helburuarekin eraso egitea, argazkiak edota bideoak grabatzea Interneten zabaltzeko, mugikorretik edo sare sozialetatik heriotza-mehatxuak egitea, Internet bidez iraintzea edo zurrumurrak zabaltzea, argazkiak edota bideoak aldatzea zabaltzeko, sexu-jazarpena eta identitatea faltsutzea. Seigarren urtean, honako hauek izan ziren jarrera zabalduenak: Internet bidez iraintzea edo zurrumurrak zabaltzea (% 1), mugikor edota Internet bidez dei iraingarriak egitea (% 0,2), sexu-jazarpena (% 0,2), mugikor edo Internet bidez mezu iraingarriak zabaltzea (% 0,2) eta sare sozialetan isolatzea (% 0,2).

8.30 Taula. Cyberbullying portaeren ziberbehatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak mailaren arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	$p$
	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila	5. maila	6. maila		
	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak	872 (85,2)	715 (74,0)	133 (13,0)	204 (21,1)	16 (1,6)	43 (4,5)	3 (0,3)	4 (0,4)	41,33	.000
Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak	930 (90,8)	819 (84,8)	87 (8,5)	126 (13,0)	5 (0,5)	18 (2,0)	2 (0,2)	2 (0,2)	20,68	.000
Erasoa egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko	942 (92,0)	876 (90,7)	67 (6,5)	75 (7,8)	11 (1,1)	12 (1,2)	4 (0,4)	3 (0,3)	1,34	.719
Argazki/bideo pribatuak zabaltzea	964 (94,1)	854 (88,4)	51 (5,0)	101 (10,5)	7 (0,7)	10 (1,0)	2 (0,2)	1 (0,1)	22,29	.000
Argazkiak/bideoak lapurtzea Interneten zabaltzeko	974 (95,1)	891 (92,2)	45 (4,4)	68 (7,0)	3 (0,3)	5 (0,5)	2 (0,2)	2 (0,2)	7,19	.066
Beldurtzeko dei anonimoak	956 (93,4)	823 (85,2)	53 (5,2)	125 (12,9)	12 (1,2)	15 (1,6)	3 (0,3)	3 (0,3)	37,74	.000
Deien/Internet bidez xantaia/mehatxu	948 (92,6)	884 (87,4)	67 (6,5)	105 (10,9)	5 (0,5)	13 (1,3)	4 (0,4)	4 (0,4)	16,31	.001
Sexu-jazarpena	991 (96,8)	907 (93,9)	26 (2,5)	51 (5,3)	5 (0,5)	7 (0,7)	2 (0,2)	1 (0,1)	10,82	.013
Identitatea faltsutzea	988 (96,5)	901 (93,3)	30 (2,9)	61 (6,3)	5 (0,5)	4 (0,4)	1 (0,1)	0 (0,0)	14,00	.003
Pasahitzak lapurtzea	965 (94,2)	874 (90,5)	49 (4,8)	78 (8,1)	7 (0,7)	13 (1,3)	3 (0,3)	1 (0,1)	12,12	.007
Argazkiak/bideoak aldatzea zabaltzeko	966 (94,3)	895 (92,7)	52 (5,1)	61 (6,3)	2 (0,2)	9 (0,9)	4 (0,4)	1 (0,1)	8,00	.046
Sare sozialetan isolatzea	986 (96,3)	904 (93,6)	30 (2,9)	57 (5,9)	6 (0,6)	2 (0,2)	2 (0,2)	3 (0,3)	12,46	.006
Sekretuak ez zabaltzeko xantaia	974 (95,1)	897 (92,9)	42 (4,1)	58 (6,0)	5 (0,5)	8 (0,8)	3 (0,3)	3 (0,3)	4,73	.192
Heriotza-mehatxuak mugikor/Internet bidez	961 (93,8)	906 (93,8)	56 (5,5)	50 (5,2)	7 (0,7)	8 (0,8)	0 (0,0)	2 (0,2)	2,34	.505
Difamazioa edota zurrumurruek Internet bidez	960 (93,8)	861 (89,1)	54 (5,3)	87 (9,0)	8 (0,8)	12 (1,2)	2 (0,2)	6 (0,6)	14,23	.003

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

### 8.42. Grafikoa Cyberbullying portaeren ziberbehaztaileen ehunekoak mailaren arabera



Bestalde, Taulan jasotzen den moduan, ikus daiteke 15 cyberbullying jokaeretatik 11 behatu dituzten ikasleen ehunekoa esanguratsuki handiagoa izan dela seigarren mailan. Alde nabarmenak topatu ziren honako jarrera hauetan: mezu iraingarriak mugikor/Internet bidez (% 14,8 bosgarren mailan eta % 26 seigarrenean), dei iraingarriak mugikor edota Internet bidez (% 9,2 bosgarren mailan eta % 15,2 seigarrenean), argazki eta bideo pribatuak zabaltzea (% 5,9 bosgarren mailan eta % 11,6 seigarrenean), beldurtzeko dei anonimoak (% 6,6 bosgarren mailan eta % 14,8 seigarrenean), deien eta

Internet bidezko xantaia/mehatxuak (% 7,4 bosgarren mailan eta % 12,6 seigarrenean), sexu-jazarpena (% 3,2 bosgarren mailan eta % 6,1 seigarrenean), identitatea ordeztzea (% 3,5 bosgarren mailan eta % 6,7 seigarrenean), pasahitza lapurtzea (% 5,8 bosgarren mailan eta % 9,5 seigarrenean), zabaltzeko argazkiak eta bideoak grabatzea (% 5,7 bosgarren mailan eta % 7,3 seigarrenean), sare sozialetan isolatzea (% 3,7 bosgarren mailan eta % 6,4 seigarrenean), Internet bidez zurrumurrak zabaltzea (% 6,2 bosgarren mailan eta % 10,9 seigarrenean).

Bosgarren mailan gehien behatutako cyberbullying jokaerak honako hauek izan ziren: mezu iraingarriak bidaltzea (% 14,8), dei iraingarriak egitea (% 9,2), grabatzeko eta zabaltzeko erasoak egitea (% 8), deien edo Internet bidez xantaia/mehatxuak egitea (% 7,4) eta izutzeko dei anonimoak egitea (% 6,6). Seigarren mailan gehien ikusitako portaerak, oro har, honako hauek izan ziren: mezu iraingarriak bidaltzea mugikor edo Internet bidez (% 26), dei iraingarriak egitea mugikor edo internet bidez (% 15,2), dei anonimoak egitea izutzeko edo beldurtzeko (% 14,8), deien edo Internet bidez xantaia/mehatxuak egitea (% 12,6), eta lapurtutako argazkiak egitea mugikorrez edo Internetez zabaltzeko (% 11,6).

Era larrian behatutako jarrerari buruz. Bosgarren mailan gehien ikusitako portaerak honako hauek izan ziren: mezu iraingarriak bidaltzea mugikor edo Internet bidez (% 1,9), grabatzeko eraso egitea eta Interneten zabaltzea (% 1,5), dei anonimoak egitea izutzeko (% 1,5), pasahitza lapurtzea (% 1) eta irainak eta zurrumurrak zabaltzea Internet bidez (% 1). Seigarren mailan, berriz, honako hauek izan ziren nagusiak: mezu iraingarriak bidaltzea mugikor edo Internet bidez (% 4,9), dei iraingarriak egitea mugikor edo Internet bidez (% 2,2), dei anonimoak egitea izutzeko (% 1,9), irainak eta zurrumurrak zabaltzea Internet bidez (% 1,8) eta deien edo Internet bidez xantaia/mehatxuak egitea (% 1,7).

Laburbilduz, hiru ikuspegietatik jasotako datuek adierazten dute cyberbullyingarekin lotutako jokabide gehienak Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek pairatzen, egiten eta behatzen dituztela. Horrez gain, hiru rol horiek alde esanguratsuak izan dituzte mailaren arabera honako jokabide hauetan: mugikorraren edota Internet bidez mezu iraingarriak bidaltzea/jasotzea, eta izutzeko dei anonimoak egitea/jasotzea.

### 8.2.3.3 Cyberbullying: Bosgarren eta seigarren mailako ikasleek pairatu, egin eta behatutako ziber-jokaera erasokorren kopurua


Mailaren arabera desberdintasunak aztertzeko helburuarekin, aldagai bakarreko bariantza-azterketak (ANOVA) egin ziren bi mailatan cyberbullyingaren lau adierazleetan lortutako puntuazioekin (ziberbiktimizazioa, zibererasoa, ziberbiktimizazio-erasokorra eta ziberbehaketa). Emaitzak 8.31. Taulan eta 8.43. Grafikoan jaso dira.

8.31. Taula. Batez bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza-analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) bullying adierazleetan mailaren arabera

	5. maila		6. maila		F (1, 1991)	$p$	$d$
	M	DT	M	DT			
Ziberbiktimizazioa	0,38	1,45	0,57	1,75	7,38	.007	0,14
Zibererasoa	0,07	0,72	0,12	1,06	1,96	.161	0,05
Ziberbiktimizazio erasokorra	0,44	1,90	0,70	2,39	6,88	.009	0,12
Ziberbehaketa	1,13	3,05	1,84	3,40	23,58	.000	0,21

$M$  = Batez bestekoa,  $DT$  = Desbideratze tipikoa,  $F$  =  $F$  Fisher,  $p$  = esangura,  $d$  = eraginaren tamaina

8.43. Grafikoa. Cyberbullying adierazleetan pairatu, egin eta behatutako portaeren batez bestekoak mailaren arabera



8.31. Taulan ikus daitekeen moduan, emaitzek alde esanguratsuak erakusten dituzte mailen artean ziberbiktimizazio-adierazleetan, ziberbiktimizazio erasokorretan eta ziberbehaketan, baina ez zibererasoen kasuan. Hiru kasu horietan, seigarren mailako ikasleek jarrera gehiago jasaten, jasaten/egiten eta behatzen dituzte bosgarren mailan baino. Edonola ere, kasu guztietan efektuaren neurria oso txikia da. Zibererasoetan ez dugu alde esanguratsurik aurkitu.

## 8.2.4 Cyberbullying: Ikastxearen sarearen arabera

### 8.2.4.1 Cyberbullying: Ziberbiktima-hutsen, zibererasotzaile-hutsen, ziberbiktima-erasotzaileen eta ziberbehatzaileen ehunekoak, ikastetxe publiko eta pribatuetan


Cyberbullyingean ikastxearen sarearen arabera ezberdintasunak zehazte aldera, kontingentzia eta khi-karratuaren azterketak gauzatu ziren bi aldagaien artean: cyberbullying parte-hartze rola (ziberbiktima-hutsa, zibererasotzaile-hutsa, ziberbiktima-erasotzailea eta ziberbehatzailea) eta ikastetxearen sarea (publikoa edo pribatu/itunduta). Emaitzak 8.32. Taulan erakusten dira eta 8.44. Grafikoan islatzen dira.

8.32. Taula. Cyberbullyingaren ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts, ziberbiktima-erasotzaile eta ziberbehatzaileen maiztasunak eta ehunekoak ikastxearen sarearen arabera

	Publikoa		Pribatua		$\chi^2$	$p$
	$f$	%	$f$	%		
Ziberbiktima-hutsa ( $n = 267$ )	140	13,8	127	13,0	0,24	.621
Zibererasotzaile-hutsa ( $n = 13$ )	4	0,4	9	0,9	2,13	.144
Ziberbiktima-erasotzailea ( $n = 62$ )	39	3,8	23	2,4	3,64	.056
Ziberbehatzailea ( $n = 753$ )	382	37,7	371	38,0	0,02	.876

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

8.44. Grafikoa. Ziberbiktima-huts, zibererasotzaile-huts, ziberbiktima-erasotzaile eta ziberbehatzaileen ehunekoak ikastetxearen sarearen arabera



8.32. Taulan eta 8.44. Grafikoan ikus daitezkeenez:

**Ziberbiktima-hutsak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **13,8k** ( $n = 140$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **13ak** ( $n = 127$ ) adierazi dute azken urtean ikaskideek egindako ziberjokaera erasotzaile bat edo gehiagoren ziberbiktima-huts izan direla. Ziberbiktima-hutsen artetik (laginaren % 13,4), % 7 ikastetxe publikoetako ikasleak dira eta % 6,4 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan. Izan ere, **ikastetxe publiko zein pribatuetako ziberbiktima-hutsen ehunekoa antzekoa da** ( $\chi^2= 0,24, p = .621$ ).

**Zibererasotzaile-hutsak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **0,4k** ( $n = 4$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **0,9k** ( $n = 9$ ) azken urtean cyberbullying-ekintza bat edo gehiago egin zituzten besteen aurka, baina ez ziren ziberbiktima izan. Zibererasotzaile-hutsen artetik (laginaren % 0,7) % 0,2 ikastetxe publikoetako ikasleak dira eta % 0,5 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan, hain justu, **ikastetxe publiko zein pribatuetako zibererasotzaile-hutsen ehunekoa antzekoa izan da** ( $\chi^2= 3,64, p = .144$ ).

**Ziberbiktima-erasotzaileak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **3,8k** ( $n = 38$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **2,4k** ( $n = 23$ ) jakinarazi dute azken urtean kideengandik ziberjokaera erasokor bat edo gehiago jasan dituztela eta haien aurka ziberjokaera erasokor bat edo gehiago egin dituztela. Ziberbiktima-erasotzaileen artetik (laginaren % 3,1), % 2 ikastetxe publikoetako ikasleak dira eta % 1,1 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan, hots, **ikastetxe publiko zein pribatuetako ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoa antzekoa izan da** ( $\chi^2=3,64, p = .056$ ).

**Ziberbehatzaileak:** Ikastetxe publikoetako ikasleen % **37,7k** ( $n = 382$ ) eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % **38k** ( $n = 371$ ) azken urtean ziberbullying-ekintza bat edo gehiago ikusi dituzte. Ziberbehatzaileen artean (laginaren % 37,8), % 19,2 ikastetxe publikoetako ikasleak dira eta % 18,6 ikastetxe pribatuetakoak. Kontingentzia azterketa ez da esanguratsua izan. Hau da, **ikastetxe publiko zein pribatuetako ziberbehatzaileen kopurua antzekoa da** ( $\chi^2= 0,02, p = .876$ ).

Laburbilduz, ikastetxearen sarearen arabera cyberbullying parte-hartze roletan ez da alde esanguratsurik aurkitu. Beste hitz batzuetan esanda, **ziberbiktima-hutsen,**



**zibererasotzaile-hutsen, ziberbiktima-erasotzaileen eta ziberbehatzaileen ehunekoak antzekoak dira ikastetxe publiko zein pribatuetan.**

#### **8.2.4.2 Cyberbullying: Cyberbullying jokaeren ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaile izandako ikasleen ehunekoa ikastetxe publiko eta pribatuetan**


Ondoren, kontingentzia eta khi-karratu azterketen bidez, cyberbullying jokabide bakoitzean ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbehatzaile izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasuna eta ehunekoa aztertu da, ikastetxeren sarea aintzat hartuz. Azterketa horretarako ziberbiktima guztiak (ez soilik ziberbiktima-hutsak) eta zibererasotzaile guztiak (ez soilik zibererasotzaile-hutsak) hartu dira kontuan. Eskuratutako emaitzak parte-hartzaile rol baikoitzeko, hau da, ziberbiktima (8.33. Taula, 8.45. Grafikoa), erasotzaile (8.34 Taula eta 8.46 Grafikoa) eta behatzaileentzako (8.35. Taula eta 8.47. Grafikoa) erakusten dira, hurrenez hurren.

Taula. 8.33. Cyberbullying portaeren ziberbiktima izan direla adierazi duten parte-hartzaileen maiztasunak eta ehunekoak ikastexerearen sarearen arabera

	Inoiz ez		Batzuetan		Sarritan		Beti		$\chi^2$	$p$
	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua		
	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Mugikor/Internet bidezko mezu iraingarriak	925 (91,0)	902 (92,4)	78 (7,7)	71 (7,3)	14 (1,3)	3 (0,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	6,90	.032
Mugikor/Internet bidezko dei iraingarriak	981 (96,5)	960 (98,4)	29 (2,9)	15 (1,5)	7 (0,7)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	8,34	.015
Erasoa egitea grabatzeko eta Internetera igotzeko	998 (98,1)	964 (98,8)	18 (1,8)	11 (1,1)	1 (0,1)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	1,44	.488
Argazki/bideo pribatuak zabaltzea	1.000 (98,3)	958 (98,2)	14 (1,4)	18 (1,8)	3 (0,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,56	.169
Argazkiak/bideoak lapurtzea Interneten zabaltzeko	1.007 (99,0)	972 (99,6)	8 (0,8)	3 (0,3)	2 (0,2)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,38	.304
Beldurtzeko dei anonimoak	952 (93,6)	931 (95,4)	53 (5,2)	40 (4,1)	12 (1,2)	2 (0,2)	0 (0,0)	3 (0,3)	11,36	.010
Deien/Internet bidez xantaia/mehatxu	968 (95,2)	944 (96,7)	42 (4,1)	26 (2,7)	6 (0,6)	5 (0,5)	1 (0,1)	1 (0,1)	3,31	.346
Sexu-jazarpena	999 (98,2)	964 (98,8)	16 (1,6)	8 (0,8)	2 (0,2)	4 (0,4)	0 (0,0)	0 (0,0)	3,11	.211
Identitatea faltsutzea	994 (97,7)	967 (99,1)	20 (2,0)	8 (0,8)	3 (0,3)	0 (0,0)	0 (0,0)	1 (0,1)	8,67	.034
Pasahitzak lapurtzea	976 (96,0)	945 (96,8)	32 (3,1)	30 (3,1)	7 (0,7)	1 (0,1)	2 (0,2)	2 (0,2)	6,22	.101
Argazkiak/bideoak aldatzea zabaltzeko	1.007 (99,0)	972 (99,6)	9 (0,9)	4 (0,4)	1 (0,1)	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)	2,70	.259
